

12

Kuota likidoa eta kenkariak

- 12.1 Kontzeptua
- 12.2 Kuota likidoa
- 12.3 Kenkari familiar eta pertsonalak
 - 12.3.1 Kenkaria ondorengo ahaideengatik (seme-alabak, bilobak, birbilobak...)
 - 12.3.2 Kenkaria seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik
 - 12.3.3 Kenkaria aurreko ahaideengatik (gurasoak, aiton-amonak, birraiton-amonak)
 - 12.3.4 Kenkaria desgaitua edo mendekoa izateagatik
 - 12.3.5 Kenkaria adinagatik
 - 12.3.6 Nola zehazten da egoera pertsonal eta familiarra?
- 12.4 Kenkaria pertsona desgaituaren ondare babestuari egindako ekarpenengatik
- 12.5 Kenkariak ohiko etxebizitzagatik
 - 12.5.1 Kenkaria ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik
 - 12.5.2 Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik
- 12.6 Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak
 - 12.6.1 Kenkaria inbertsio eta bestelako jarduerengatik
 - 12.6.2 Kenkaria langileek enpresan parte hartzeagatik
 - 12.6.3 Kenkaria enpresa berrietan edo osatu berrietan inbertitzeagatik
- 12.7 Kenkariak dohaintzengatik
 - 12.7.1 Mezenasgo jarduerengatik
- 12.8 Bestelako kenkariak
 - 12.8.1 Kenkaria nazioarteko zergapetze bikoitzagatik
 - 12.8.2 Kenkaria langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik eta alderdi politikoen aldeko kuota eta ekarpenengatik
 - 12.8.3 Kenkariak nazioarteko gardentasun fiskaleko erregimenean
- 12.9 Frogagiriak

12.1 Kontzeptua

Kuota likidoa kuota osoari kenkarien zenbatekoa kenduz lortzen da. Kuota likidoa ezin da inoiz negatiboa izan.

12.2 Kuota likidoa

LABURPENEA

Kuota likidoa = Kuota osoa – kenkariak

Kenkari mota hauek bereizten dira:

- Kenkari orokorra
- Kenkari familiar eta pertsonalak.
- Kenkaria desgaituaren ondare babestuari egindako ekarpenengatik.
- Ohiko etxebizitzaren kenkariak.
- Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak.
- Dohaintzen kenkariak.
- Bestelako kenkariak.

12.3 Kenkari familiar eta pertsonalak

Apartatu honen barruan sei kenkari hauek bereizten dira:

- Ondorengo ahaideena.
- Seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik egiten dena.
- Aurreko ahaideena.
- Desgaitasunagatik egiten dena edo adineko pertsonak mendekoak izateagatik araututakoa.
- Adinarena.

Azter ditzagun banan-banan.

12.3.1 Kenkaria ondorengo ahaideengatik (seme-alabak, bilobak, birbilobak...)

Zenbatekoa da kenkaria?

Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzagatik kenkari hauek egingo dira:

- **585,00 euro** urtean, lehenengoagatik.
- **724,00 euro** urtean, bigarrenagatik.
- **1.223,00 euro** urtean, hirugarrenagatik.
- **1.445,00 euro** urtean, laugarrenagatik.
- **1.888,00 euro** urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzagatik.

ERNE: ondorengo ahaideak **6 urte baino gutxiago baditu**, zenbateko horiek **335,00 euro** gehituko dira urtean.

Baldintzak

- Ondorengo ahaideen adina **hogeita hamar urtetik gorakoa ez izatea**, salbu eta kenkarirako eskubidea duten desgaituak edo mendekoak badira (itsuak, mutilatuak edo elbarriak, fisikoak zein psikikoak).
- Ondorengo ahaideak dagokion zergaldian lortu dituen urteko errentak, salbetsitakoak sartu gabe, **9.907,80 eurokoak**⁸⁹ baino handiagoak ez izatea edo,

bestela, beste familia unitate batean egonez gero, bertako kideetako inork ez lortzea dagokion zergaldian **9.907,80 eurotik**⁹⁰ gorako errentak, salbetsitakoak sartu gabe.

- Ondorengo ahaideek **ez aurkeztea** dagokion zergaldian zerga honen **aitorpenik**, edo hura **aurkeztera behartuta ez egotea**.

Nola banatzen da kenkaria?

- Ondorengo ahaidea maila bereko aurreko ahaideekin bizi denean (aita eta amarekin, adibidez), kenkaria zati berdinetan hainbanatuko da horien artean.
- Aldiz, ahaidetasun maila desberdina duten aurreko ahaideekin bizi bada (guraso eta aiton-amonekin, adibidez), gertuen dauden aurreko ahaideek bakarrik izango dute kenkarirako eskubidea (gurasoek). Kasu horretan, kenkaria zati berdinetan ere hainbanatuko da horien artean. Hala ere, gertuen dauden aurreko ahaideek urtean lortu dituzten errentak 9.907,80 eurotik⁹¹ gorakoak ez badira, kenkaria mailarik urrunekoek egin ahal izango dute.
- Epaileen erabakiz ondorengo ahaidea diruz mantentzeko obligazioa ezarri bada, kenkaria mantenuari aurre egiten dion gurasoaren aitorpenean egingo da baldin eta zama hori guraso horrek bakarrik bere gain hartu badu; aldiz, mantenu ekonomikoari bi gurasoek aurre egin behar diotenean, kenkaria erdibana egingo da guraso bakoitzaren aitorpenean. Horrelakoetan, epaile eskudunak ebazitakoa beteko da, eta diru mantenu hori benetan eta behar bezala ordaindu dela frogatu beharko da.

Tutoretza eta etxeko harrera

Tutoretzagatik edo etxeko harreragatik zergadunari lotuta dauden pertsonak ondorengo ahaideen tratamendu bera izango dute. Ezinbestekoa da aipatutako tutoretza edo harrera hori adingabeak babesteko gaietan eskudun den entitate publiko batekin formalizatuta egotea.

Adibidea

Kenkaria egin al daiteke seme-alabengatik eta beste ondorengo batzuegatik jarraian aipatzen diren kasuetan? (aurreko ahaideekin bizi dira):

1. 17 urteko semea, 10.500,00 euroko errentak izan dituen.

Erantzuna: ez du kenkarirako eskubiderik ematen, bere urteko errentek lanbidearteko gutxieneko soldata gainditzen dutelako (9.907,80 euro).

2. 26 urteko alaba ezkondua, diru sarrerarik izan ez duena. 2 urteko semea du. Senarrak 4.207,08 euro bakarrik jaso ditu 2017an, langabezi prestazioa dela eta.

Erantzuna: 26 urteko alabak kenkarirako eskubidea ematen du. Izan ere, nahiz eta ezkondua egon eta beste familia unitate bateko kide izan, bere senarraren urteko errentak ez dira 9.907,80 eurokoak baino handiagoak. Gainera, alaba horren gurasoek bilobatagatik egin dezakete kenkaria, umearen gurasoek izan dituzten errentak 9.907,80 eurotik beherakoak direlako. Kasu honetan, 1.644,00 euroko kenkaria egingo da: 585,00 € (alabatagatik) gehi 724,00 € (bilobatagatik) eta 335,00 € (bilobak 6 urte baino gutxiago izateagatik).

90 Kopuru hau lanbidearteko gutxieneko soldatari dagokio, eta abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuak finkatu du.

91 Kopuru hau lanbidearteko gutxieneko soldatari dagokio, eta abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuak finkatu du.

89 Kopuru hau lanbidearteko gutxieneko soldatari dagokio, eta abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuak finkatu du.

3. 25 urteko semea, 2.704,55 euroko errentak lortu dituen eta aitortpena aurkezten duena.

Erantzuna: aitortpena aurkezten duenez, ez du kenkarirako eskubiderik ematen.

4. 31 urteko semea, mendekoa eta errentarik gabea.

Erantzuna: kenkarirako eskubidea ematen du.

5. Errentarik gabeko semea, 2017ko otsailaren 1ean 30 urte bete zituen.

Erantzuna: ez du kenkarirako eskubiderik ematen zergaren sortzapen egunean (abenduaren 31n) 30 urte dituelako.

6. Gurasoak bost seme-alabarekin bizi dira, eta hauek dira beren adinak: 10, 15, 18, 20 eta 23 urte. Ezkondu gabe daude denak, eta ez dute errentarik jasotzen. Gainera, gurasoak 12 urteko ilobaren tutoreak dira.

Erantzuna: seiek ematen dute kenkarirako eskubidea. Hala ere, bi ezkontideekin batera bizi direnez, hauek zati berdinetan banatuko dute kenkaria nork bere aitortpenean.

Kenkaria		Aitaren aitortpena	Amaren aitortpena
Lehenengoagatik	585,00 €	292,50 €	292,50 €
Bigarrenagatik	724,00 €	362,00 €	362,00 €
Hirugarrenagatik	1.223,00 €	611,50 €	611,50 €
Laugarrenagatik	1.445,00 €	722,50 €	722,50 €
Bosgarren eta hurrengoengatik	2 x 1.888,00 €	1.888,00 €	1.888,00 €
Zenbateko kenkaria, guztira		3.876,50 €	3.876,50 €

7. Senar-emazteak bananduta daude. Ama 17 urteko semearekin bizi da, eta aitak semearen mantenu ekonomikoan laguntzen du epaileak hala aginduta.

Erantzuna: semeak kenkarirako eskubidea ematen du. Dena den, kenkaria zati berdinetan hainbanatuko da guraso bakoitzaren aitortpenean.

12.3.2 Kenkaria seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik

Mantenu kontzeptuan seme-alabek elikatu, ostatu eman, jantzi, laguntza medikua hartu eta hezteko behar den guztia sartzen da.

Zenbatekoa da kenkaria?

Zergadunak %15eko kenkaria egin dezake mantenurako ordaindu dituen kopuruengatik, muga hauen barruan beti:

- **175,50 euro** urtean, lehen seme-alabagatik.
- **217,20 euro** urtean, bigarren seme-alabagatik.
- **366,50 euro** urtean, hirugarren seme-alabagatik.
- **433,50 euro** urtean, laugarren seme-alabagatik.
- **566,40 euro** urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzagatik.

Baldintzak

Kenkari hau egin ahal izateko, ezinbestekoa da zergadunak epaileen erabakiz ordaintzea seme-alaben urteko mantenerako kopuruak.

Adibidea

Eman dezagun dibortziatuta zaudela eta zure 11 urteko semea zure ezkontide ohiarekin bizi dela. Judizialki onartutako hitzarmenaren arabera, 1.500,00 euro ordaindu behar dituzu urtero zure semearen mantenurako. Honako kenkariak izango dituzu:

Semearengatik	585,00 € / 2	292,50 €
Urteko mantenua ordaintzeagatik	(1.500,00 €)ren %15 (175,50 €-ko mugarekin)	175,50 €

12.3.3 Kenkaria aurreko ahaideengatik (gurasoak, aiton-amonak, birraiton-amonak...)

Zenbatekoa da kenkaria?

Urte natural osoan zehar zergadunarekin modu iraunkor eta jarraituan bizi den aurreko ahaide bakoitzagatik **279,00 euroko** kenkaria egingo da.

Kenkari hau aplikatzearen ondorioetarako, ondoko kasu hau ere aurreko paragrafoan deskribatutako elkarbizitzarekin parekatuko da: aurreko ahaidea urte natural osoan egoitza zentro batean bizitzea modu jarraitu eta iraunkorrean, eta egonaldiairengatik gastuak ondorengo ahaideak ordaintzea bere ondoretik egoitzari.

Baldintzak

- Dagokion zergaldian aurreko ahaideak izan dituen urteko errentak, salbuesitakoak sartu gabe, **9.907,80 eurotik** gorakoak ez izatea⁹².
- **Beste familia unitate batean egonez gero**, bertako kideetako inork izan dituen urteko errentak, salbuesitakoak sartu gabe **9.907,80 eurotik gorakoak** ez izatea dagokion zergaldian⁹³.
- Ondorengo ahaideek **ez aurkeztea** dagokion zergaldian zerga honen aitortpenik, edo hura aurkeztera behartuta **ez egotea**.

Nola banatzen da kenkaria?

- Aurreko ahaidea maila bereko ondorengo ahaideekin bizi denean (seme-alabekin, adibidez), kenkaria zati berdinetan hainbanatuko da ondorengoan artean.
- Aldiz, ahaidetasun maila desberdina duten ondorengo ahaideekin bizi bada (seme-alaba eta bilobekin, adibidez), gertuen dauden ondorengo ahaideek bakarrik izango dute kenkarirako eskubidea (seme-alabek). Kasu horretan, kenkaria zati berdinetan ere hainbanatuko da horien artean. Hala ere, gertuen dauden ondorengo ahaideek urtean lortu dituzten errentak **9.907,80 eurotik** gorakoak ez badira⁹⁴, kenkaria mailarik urrunenekoek egin ahal izango dute.
- Aurreko ahaideak egoitzetan bizi badira, kenkaria mailarik gertueneko ahaideek egingo dute baldin eta frogaturik uzten badute aurreko ahaidea egoitzako egonaldi gastuak beraiek ordaindu dituztela. Gastu horiek maila bereko ondorengo ahaide batek baino gehiagok ordaindu badituzte, kenkaria zati berdinetan hainbanatuko da haien artean.

92 Kopuru hau lanbidearteko gutxieneko soldatarik dagokio, eta abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuak finkatu du.

93 Kopuru hau lanbidearteko gutxieneko soldatarik dagokio, eta abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuak finkatu du.

94 Kopuru hau lanbidearteko gutxieneko soldatarik dagokio, eta abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuak finkatu du.

Adibidea

Eman dezagun 76 urte dituzula, zure urteko errentak 4.808,10 eurokoak direla, eta adin nagusiko zure hiru semeekin bizi zarela.

Dakigunez, ondorengo ahaide bakoitzagatik 279,00 euroko kenkaria egin daiteke. Kasu honetan, hiru semeekin bizi zarenez, kopuru hori zati hiru egingo da:

	Kenkaria
Lehen semea	93,00 €
Bigarren semea	93,00 €
Hirugarren semea	93,00 €

12.3.4 Kenkaria desgaitua edo mendekoa izateagatik

Zenbatekoa da kenkaria?

Minusbaliotasun edo mendekotasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza kontuan hartuta honako kenkaria aplikatuko da:

	Kenkaria
Minusbaliotasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza	
Minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa bada	867,00 €
Minusbaliotasuna %65ekoa edo handiagoa bada. Mendetasun txikia	1.224,00 €
Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuz. Mendetasun ertaina	1.428,00 €
Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuz. Mendetasun handia	2.040,00 €

Baldintzak

- Desgaitua edo mendekoa zergadunak berak izan behar du edo, bestela, aurreko edo ondorengo ahaide batek, ezkontideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-lagunak, edo laugarren mailarainoko zeharkako ahaideren batek. Kasu horretan, ahaideek, euren adina edozein dela ere, zergadunarekin bizi behar dute, eta beren urteko errentak, salbuesitakoak sartu gabe, ezin dira zergaldiaren barruan 19.815,60 eurokoak baino handiagoak izan⁹⁵.
- Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, egoitzetan dauden pertsona desgaituen edo mendekoen egoera zergadunarekin batera bizitzearen parekotzat hartzen da, betiere frogatzen bada pertsona desgaitua egoitza horietan egoteagatik sortutako gastuak zergadunak ordaindu dituela.
- Minusbaliotasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntzaren puntuak abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak I. eta II. eranskinetan ezarritakoaren arabera neurtuko dira.
- Kenkari hau bateragarria da aurreko apartatuetan adierazitakoekin (ondorengo ahaideak, aurreko ahaideak, mantenua).

⁹⁵ Senitartekoen errentak ezin dira izan, zergaldiaren barruan, lanbidearteko gutxieneko soldataren bi halakoak baino handiagoak. Abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuaren arabera, lanbidearteko gutxieneko soldata 9.907,80 eurokoa da.

- Desgaituak edo mendekoak aitortpena aurkezten badu, bi aukera izango ditu: kenkari osoa berak aplikatzea edo, bestela, berarekin bizi den zergadunak osorik aplikatu dezan uztea. Bigarrena aukeratzen bada eta desgaitua zergadun batekin baino gehiagorekin bizi bada, kenkaria zati berdinetan hainbanatuko da zergadun bakoitzaren artean.

Tutoretza eta etxeko harrera

Kenkari hau aplikatu ahal izango da, halaber, pertsona desgaitua edo mendekoa zergadunaren tutoretzapean dagoenean edo azken honek etxean hartu duenean. Ezinbestekoa da aipatutako tutoretza edo harrera hori adingabeak babesteko gaian eskudun den entitate publiko batekin formalizatuta egotea. Horretarako, apartatu honetan errenta eta elbarritasun mailari buruz adierazi diren baldintzak bete behar dira.

Orobat, lehenago aipatutako ahaide edo asimilatuen zerrendan sartzen ez den 65 urteko edo hortik gorako pertsona bakoitzagatik apartatu honetan ezarritako kenkariak aplikatuko dira, minusbaliotasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza kontuan hartuta, baldin eta zergadunarekin bizi bada eta bere urteko errentak, salbuesitakoak sartu gabe, 19.815,60 eurokoak⁹⁶ baino txikiagoak badira.

Adibidea

Demagun zure urteko errenta 10.818,22 eurokoa dela. Gainera, %33ko minusbaliotasun maila duzu. Zurekin bi pertsona bizi dira:

- Aita, 70 urtekoa. %70ko minusbaliotasuna du eta 2017an ez du errentarik izan.
- Familiaren lagun bat, 68 urtekoa, %80ko minusbaliotasuna duena. Beste pertsona baten laguntza behar du oinarrizko gauzak egiteko (45 puntu, hirugarren pertsonen laguntzagatik). Gainera, 2017an ez du errentarik izan.

Zenbateko kenkariak izan ditzakezu?

Zure minusbaliotasunagatik		867,00 €
Aitaren minusbaliotasunagatik	Aurreko ahaidearengatik	279,00 €
	Desgaitasunagatik	1.224,00 €
65 urtetik gorako pertsona desgaitua zurekin bizitzeagatik		2.040,00 €
GUZTIRA		4.410,00 €

12.3.5 Kenkaria adinagatik

Zenbatekoa da kenkaria?

Kenkari hau aldatzen da adina zein den, zerga oinarri osoa (orokorra + aurrezpenarena) zenbatekoa den, eta zein tributazio mota aukeratzen den.

Banakako tributazioa aukeratu bada, hau da kenkaria:

Adina	Zerga oinarria 0<20.000	20.000-30.000 arteko ZOO	Zerga oinarria 0 > 30.000
> 65	334 €	334 - 0,0334 x (ZOO-20.000)	0 €
> 75	612 €	612 - 0,0612 x (ZOO-20.000)	0 €

⁹⁶ Desgaituaren errentak ezin dira izan, zergaldiaren barruan, lanbidearteko gutxieneko soldataren bi halakoak baino handiagoak. Abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuaren arabera, lanbidearteko gutxieneko soldata 9.907,80 eurokoa da.

Baterako tributazioa aukeratu bada, hau da kenkaria:

Adina	Zerga oinarria 0<35.000	Zerga oinarria 0>35.000
> 65	334 €	0 €
> 75	612 €	0 €

12.3.6 Nola zehazten da egoera pertsonal eta familiarra?

Kenkari hauetarako eskubidea ematen duten zirkunstantzia pertsonal eta familiarak zehazteko, zergaren sortzapen egunean dagoen egoerari begiratu zaito (normalean, abenduaren 31n dagoen egoera hartzen da kontuan).

Kenkari horiek konputatzeko garaian, kalkulua ez da inoiz ere izango kenkariak aplikatzeko exijitutako zirkunstantziak gertatu diren urte naturaleko egun kopuruaren araberakoa.

Aurreko apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, kenkarirako eskubidea sortzen duen pertsona zergaldiaren barruan hiltzen bada, kenkari hauek aplikatzeko kontuan hartuko diren zirkunstantzia pertsonal eta familiarak pertsona horren heriotzaren egunean dagoen egoera kontuan hartuz zehaztuko dira, kenkariaren zenbatekoa egun horretara arte proportzionalki murriztu gabe.

Adibidea

Eman dezagun zurekin hiru seme bizi direla:

- Lehen semea, 8 urtekoa eta %40ko minusbaliotasuna zuena, 2017ko abuztuaren 1ean hil zen trafiko istripu batean.
- Bigarren semea 2010ko azaroaren 16an jaio zen. Beraz, 2017ko azaroaren 16an 6 urte bete ditu.
- Hirugarren semea 2017ko abenduaren 1ean jaio zen.

Zenbateko kenkariak egin ditzakezu?

Lehen seme minusbaliatuagatik	ondorengo ahaideagatik	585,00 €
	Desgaitasunagatik	867,00 €
Bigarren semeagatik	ondorengo ahaideagatik	724,00 €
Hirugarren semeagatik	ondorengo ahaideagatik	1.223,00 €
	6 urtetik beherakoagatik	335,00 €
GUZTIRA		3.734,00 €

LABURPENA: kenkari motak			
Kenkari motak	Kenkariaren zenbatekoak		
Ondorengo ahaideagatik	585,00 euro urtean, lehenengoagatik		+ 335,00 euro, 6 urte baino gutxiago badi-tuzte
	724,00 euro urtean, bigarrenagatik		
	1.223,00 euro urtean, hirugarrenagatik		
	1.445,00 euro urtean, laugarrenagatik		
Mantenuagatik	%15	Mugak:	175,50 euro urtean, lehen seme-alabagatik
			217,20 euro urtean, bigarren seme-alabagatik
			366,90 euro urtean, hirugarrenagatik
			433,50 euro urtean, laugarrenagatik
Aurreko ahaideagatik	279,00 euro		
	Zergaduna, aurreko edo ondorengo ahaidea, ezkontidea, izateko bikole-laguna 65 edo zeharkako ahaidea, laugarren mailaraino, hau barne, desgaitua denean, edo urteko edo hortik gorako pertsona desgaitua edo mendekoa zergadunarekin bizi eta aurreko ahaide edo asimilatuen zerrendan sartuta ez dagoenean:		
Desgaitasunagatik edo mendekotasunagatik	Minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa bada		867,00 €
	Minusbaliotasuna %65koa edo handiagoa bada. Mendetasun txikia		1.224,00 €
	Minusbaliotasuna %75koa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuz. Mendetasun ertaina		1.428,00 €
Adinagatik	Minusbaliotasuna %75koa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuz. Mendetasun handia		2.040,00 €
	Banakako tributazioa aukeratu bada, hau da kenkaria:		
Adinagatik	Adina	ZO <20.000	ZO > 30.000
	> 65	334 €	334 - 0,0334 x (ZO-20.000)
	> 75	612 €	612 - 0,0612 x (ZO-20.000)
	Edad	ZO <35.000	ZO > 35.000
	> 65	334 €	0 €
	> 75	612 €	0 €

12.4 Kenkaria pertsona desgaituaren ondare babestuari egindako ekarpenengatik

Zergadunek %30eko kenkaria egin dezakete, urtean gehienez 3.000,00 euroraino, pertsona desgaituen ondarea babestu eta Kode Zibila aldatzen duen azaroaren 18ko 41/2003 Legeak, Auzibideratze Zibilaren Legeak eta horri buruzko zerga araudiak erregulatutako desgaituaren ondare babestuari egindako ekarpenengatik.

Aurreko apartatuan aipatzen den kenkaria egin dezakete desgaituaren zuzeneko nahiz zeharkako ahaideek, hirugarren mailaraino, hori barne, bai eta desgaituaren ezkontideak edo izatezko bikote-lagunak edo desgaitua tutoretza edo harrera araubideari jarraituz hartua duten pertsonak ere.

Inoiz ere ez dute kenkari hau sortuko ondare babestuen titularraren den desgaituak berak egindako ekarpenek.

Diruzkoak ez diren ekarpenak badira, ekarpenaren zenbatekotzat hartuko da irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarrii buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan jasotakoa kontuan hartuz ateratzen den zenbatekoa.

Apartatu honetan aipatzen den desgaituaren ondare babestuari egindako ekarpenei dagozkien ondasun eta eskubideen eskurapenak salbuetsita daude Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan.

12.5 Kenkariak ohiko etxebizitzagatik

Aurrera jo baino lehen, ohiko etxebizitza zer den argitu beharra dago.

Zer da ohiko etxebizitza?

Ohiko etxebizitzat hartzen da zergadunak **hiru urteko** epe jarraituan bizitzeko erabiltzen duena.

Hala ere, etxebizitza ohikoa dela joko da, baita ere, hiru urteko epe hori igaro ez arren, zergaduna hil denean, edo ezinbestez etxebizitzaz aldatzera behartu duten zirkunstantziak gertatu direnean, hala nola: etxebizitza ez egokitzea zergadunaren, ezkontidearen, izatezko bikote-lagunaren, edo harekin bizi den ondorengo edo aurreko ahaidearen ezintasun mailara edo zergaren kuota osoan kenkaria egiteko eskubidea ematen duen pertsonarenera, edota senar-emaztegaiak ezkontzea, senar-emazteak banantzea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikotea desegitea, lantokia aldatzea, lehen enplegua edo beste enplegu bat lortzea, zirkunstantzia ekonomikoengatik etxebizitza epe barruan ezin ordaintzea, eta antzeko beste egoera batzuk gertatzea.

ERNE: ohiko etxebizitzaren kontzeptutik kanpo geratuko dira lorategiak, parkeak, igerileku eta kirol instalazioak, garajeak eta, oro har, eranskinak eta etxebizitza bera ez diren elementu guztiak. Aldiz, elementu horiek kontzeptu horren barruan sartuko dira etxebizitzarekin batera finka erregistral bakarria osatzen dutenean.

Familia unitateko kideek etxebizitza bat baino gehiago dutenean jabetzan, horietako **bat bakarrik hartuko da ohiko etxebizitzatzat**. Horretarako kontuan edukiko da non duen familia unitateak bere bizitza interesen eta harreman pertsonal, sozial eta ekonomikoen gune nagusia.

Etxebizitza bat zergadunaren ohiko etxebizitzat hartzeko, beharrezkoa da zergaduna **hamabi hilabete igaro baino lehen bertan** bizitzen jaretzea, etxebizitza erosi duenetik edo obrak amaitu direnetik aurrera kontatuta. Hurrengo kasuetan, ordea, ohiko etxebizitza izaten jarraituko du:

- Zergaduna hiltzen denean edo etxebizitza okupatzea eragozten duten zirkunstantziak gertatzen direnean (ezkontzea, senar-emazteak banantzea, lantokiz aldatzea,...).
- Bere kargu edo enplegua dela-eta zergadunak beste ohiko etxebizitza bat duenean eta, horren ondorioz, erosi berri duen etxebizitza erabiltzen ez duenean. Horrelakoetan, hamabi hilabeteko epea kargua edo enplegua uzten duenetik aurrera kontatuko da.

Lokalak etxebizitza gisa gaitzen badira, etxebizitza lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentzia ematen denetik aurrera hasiko da kontatzen aipatutako hamabi hilabeteko epea.

Aurreikusitako salbuespenak aplikatzen direnean, ohiko etxebizitza erosteagatik egiten den kenkaria etxebizitza derri-gorrez aldatzera behartzen duten edo etxea okupatzea eragozten duten zirkunstantziak gertatu arte aplikatuko da. Hala ere, zergadunak kargu edo enpleguagatik erabiltzen badu ohiko etxebizitza, kenkari hau egiten jarraitu dezake egoera horrek dirauen bitartean eta etxebizitza erabiltzen ez den artean.

Tratamendu hori bera aplikatuko da zergadunak etxebizitzaren beharra konpentsatzeko kopuruak jasotzen dituen eta, gainera, etxebizitza familia unitateetik kanpoko pertsonak erabiltzen ez dutenean.

65 urtetik gorako pertsonak ohiko etxebizitza saltzeagatik agerian jarri dezaketen ondare irabazia, edo mendekotasun ertaina edo handia dutenek ohiko etxebizitza saltzean lortutako ondare irabazia partzialki salbuetsita gera dadin, eta zergadunaren ohiko etxebizitza saltzeagatik agerian jarritako ondare irabazia ere salbuetsita egon dadin –baldin eta salmantan lortutako zenbatekoa ohiko etxebizitza bat erosteko erabiltzen bada–, ulertuko da ohiko etxebizitza eskualdatzen ari dela eraikin hori une horretan zergadunaren ohiko etxebizitza denean edo, bestela, hura eskualdatu aurreko bi urteetako edozein egunetara arte halakotzat hartu denean.

KASU BEREZIA -

ZAINZA PARTEKATUTA DAGOENEAN

Gurasoek seme-alaben zaintza eta ardura partekatu behar badute epailearen erabakiz, eta erabaki horretan ezarrita badago seme-alabek familiaren etxebizitzan bizi behar dutela eta gurasoak txandaka arduratuko direla haien zaintzaz etxebizitza horretan, zergadunaren ohiko etxebizitza zein den zehaztearen ondorioetarako, gurasoek adierazi behar dute zergaldian okupatu dituzten etxebizitzetatik zein aukeratzten duten zergaldi horren barruan egoitza gisa.

Aukera banakakoa izango da, hau da, guraso bakoitzarena. Zergaldi bakoitzean egin behar da aukera, zergaren autolikidazioa aurkezten denean eta zergaldi baterako egiten den aukerak ez du lotuko hurrengo zergaldietarako.

Aurreko gorabehera, berrinbertsioa salbuesteko eta ohiko etxebizitzaren erosketagatik zilegi den kenkaria aplikatzeko, ezinbestekoa da aukeraturako etxebizitzak ohiko etxebizitzaren baldintzak betetzea. Hau da, epea konputatzeko, kontuan hartuko dira zergadunak, seme-alaben zaintza partekatuak eraginda, familiaetxebizitza ohiko etxebizitza gisa aukeratu duen zergaldietan kanpoan emandako denboraldiak.

Apartatu honetan bi kenkari hauek arautzen dira:

- Ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik
- Ohiko etxebizitza erosteagatik

12.5.1 Kenkaria ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik

Zenbatekoa da kenkaria?

Ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik zergaldian diru kopuruak ordaindu dituzten zergadunek ondorengo kenkaria egin ahal izango dute:

- Zergaldian ordaindutako kopuruaren %20, 1.600,00 euroko mugarekin urtean.
- Zergaldian ordaindutako kopuruaren %25, 2.000,00 euroko mugarekin urtean, ondoko kasuetan:
 - Zergadunak 30 urte baino gutxiago dituenean. Zergadunaren adina zehazteko, zerga sortzen den egunean dagoen egoerari begiratu zaio (abenduaren 31ko egoera izaten da, oro har).
 - Zergaduna familia ugariaren titularraren denean. Familia ugariaren titulartasuna zehazteko, zerga sortzen den egunean dagoen egoerari begiratu zaio (abenduaren 31ko egoera izaten da, oro har).

Arau berezia batera egiten den aitortzearen 30 urtetik gorako eta beheko zergadunak daudenean

Batera tributatzea aukeratzen bada eta ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik araututako kenkarirako eskubidea dutenak pertsona bat baino gehiago badira, batzuk 30 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, %25eko portzentajea aplikatuko da, eta muga 2.000,00 eurokoa izango da.

Arau berezia tartean erabaki judiziala dagoenean

Epaelek erabaki badute etxebizitza familiarraren alokairua ordaintzeko obligazioa zergadunari bakarrik dagokiola, zergadun horrek izango du eskubidea apartatu honetan aipatzen den kenkaria bere autolikidazioan egiteko. Obligazio hori bi zergaduneri ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzaren autolikidazioan egingo da norberari dagokion proportzioan, %20ko portzentajea eta 1.600,00 euroko muga aplikatuta.

12.5.2 Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik

Zergadunek eskubidea dute kenkari bat aplikatzeko ohiko etxebizitzaren erosketan zergaldian inbertitutako kopuruengatik, erosketak sortutako gastuak barne, eta ohiko etxebizitza erosteko besteren kapitalak erabiltzean zergaldian ordaindutako interesengatik, haren kontura joan diren besteren finantzaketak sortutako gastuak ere barne.

Zer da ohiko etxebizitza erostea?

- Dirua erabiltzea ohiko etxebizitza **erosteko**. Ez dira etxebizitza erosketatzat hartzen honako hauek:
 - **Artapen gastuak** (pintaketa, entokadura,...) edo konponketa gastuak (berogailua edo igogailuak konpontzea, iturgintza lanak egitea,...)
 - **Hobekuntzak** (altzariak, seguritate atek edo kontraleihoak jartzea,...).
 - Garaje plazak, lorategiak, parkeak, igerileku eta kirol instalazioak eta, oro har, eranskinak edo etxebizitzarekin batera finka erregistratzen bakarrik osatzen diren beste edozein elementu eskuratzea.

- Dirua erabiltzea ohiko etxebizitza **birgaitzeko**.

Birgaitzeak hartuko dira jabeak bere ohiko etxebizitzan egindako obrak, baldin eta ebatzen batek jarduketara babestuz kalifikatu edo aitortu baditu Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, ondare hiritartua eta eraikia birgaitzeko jarduketara babestuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera, edo, hala badagokio, babesteko jarduketatzat kalifikatu badira abenduaren 12ko 2006/2008 Errege Dekretuak edo antzekoak diren ordezko arauak ezarritakoari jarraituz.

Jabeak bere ohiko etxebizitzan egindako obratzat hartuko dira, baita ere, zergadunak bere lokal bati etxebizitza erabilera emateko egiten dituen lanak, haien helburua, betiere, zergadunaren ohiko etxebizitza izatea denean.

- **“Etxebizitza kontuetan”** diru kopuruak gordailutzea. Kengarriak izango dira baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak bakar-bakarrik ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabiltzen badira kontua ireki denetik hasi eta **6 urteko** epean. Kenkarirako eskubidea hurrengo kasuetan galduko da:

- Zergadunak kenkari eskubidea sortu duten eta etxebizitza kontuan utzi diren kopuruak bere ohiko etxebizitza erostea edo birgaitzea ez diren helburuetarako erabiltzen dituen eta kopuru horiek kreditu entitate bereko edo beste entitate bateko beste kontu batean osorik birjarri edo aldatzen ez direnean. Kopuruaren zati bat erabiliz gero, zergadunak erabilitako kopuruak lehendabizi gordailututakoak direla ulertuko da.

Zergaduna hiltzen bada aurreko apartatuan aipatu den sei urteko epea amaitu baino lehen, etxebizitza kontuko kopuruak ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzera zuzentzeko obligazioa ez da bete gabe hartuko.

- Kontua ireki denetik sei urte igaro direnean eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabili ez direnean.

- Ohiko etxebizitza geroago erosi edo birgaitzen denean kenkari honetarako exijitzen diren baldintzak bete gabe.

Letra honetan aipatzen diren kontuetan gordailututako diru kopuruak ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabiltzen direnean, haiengatik ezingo da berriro kenkaririk egin, aurrez kenkarirako eskubidea sortu badute.

Zergadun bakoitzak etxebizitza kontu bat bakarrik izan dezake.

Etxebizitza kontuak bereizik identifikatuko dira Zergaren aitortzearen. Gutxienez datu hauek adieraziko dira:

- Kontua zein entitatetan ireki den.
- Kontuaren zenbakia.
- Irekiera data.
- Kontuaren saldoak ekitaldian izan duen gehikuntza.

Aurretik egindako kenkarietarako eskubidea galtzen denean, zergadunak honako kopuruak gehitu beharko dizkio baldintzak bete ez diren ekitaldian sortu den Zergaren kuotari: egin diren kenkariak gehi dagozkien berandutza interesak⁹⁷.

97 Ikus Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergen Foru Arau Orokorra (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua). Berandutza interesa 26. artikuluan arautzen da.

Zein beste kasu dira erosketaren parekoak?

Hona hemen ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatzen diren beste kasu batzuk, kenkari honetarako eskubidea ere ematen dutenak:

- Etxea handitzea.
- Etxea eraikitzea.
- Azalera eskubidea eskuratzea.
- Pertsona minusbaliatuen etxebizitzan egokitze eta aldatze lan eta instalazioak egitea.

Azter ditzagun banan-banan.

1. Etxea handitzea.

Horretarako beharrezkoa da azalera habitagarria modu iraunkorrean eta urteko sasoi guztietan handitzea. Handitze hori estali gabeko zatia itxiz nahiz beste edozein modutara erabiliz egin daiteke.

2. Etxea eraikitzea.

Zergadunak zuzenean ordaindu behar ditu obren gastuak edo, bestela, konturako ordainketak egin behar dizkio obren sustatzaileari, beti ere inbertsioa hasi eta lau urteko epea igaro baino lehen amaitzen badira obrak.

Lau urteko epe hori honako kasuotan luza daiteke:

- *Epaileak onartutako konkurtsua.* Sustatzaileak ez baditu eraikuntza lanak amaitzen lau urteko epea igaro baino lehen edo etxebizitzak ezin baditu epe horretan eman, epe hori lau urtez luzatuko da zuzenean, eta etxea okupatzeko ezartzen den hamabi hilabeteko epea etxea ematen den egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Epea luza dadin, hasierako epea bete ez den zergaldiko aitopenarekin batera, zergadunak etxebizitzan egingako inbertsioen frogagiriak eta lehen adierazitako egoeretakoa bat gertatu izanaren beste edozein frogagiri aurkeztu beharko ditu.

Zergaduna ez dago diru sarrerarik egitera behartuta eraikitze lanak amaitzeko lau urteko epe orokorra ez betetzeagatik.

- *Zergadunarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik obrak gelditu eta lau urteko epean amaitu ezin direnean.* Kasu honetan, zergadunak epea luzatzeko eskatu behar dio Zerga Administrazioari. Horretarako hilabeteko epea izango du lau urteko epea bete ez den egunetik aurrera. Eskarera honako hau adieraziko da:

- Epea zergatik ez den bete.
- Zenbat denbora beharko duen, bere ustez, eraikuntza lanak amaitzeko (denbora hori ezin da lau urtekoa baino handiagoa izan).

Eskararekin batera, zergadunak bidezko frogagiriak aurkeztuko ditu. Dokumentazioa ikusi ondoren, Zerga Administrazioak epea luzatzea bidezkoa den eta zenbat luzatuko dion erabakiko du. Erabakitzen den luzapenak ez du zertan bat etorritik zergadunak eskatutakoarekin. Hiru hilabeteko epean espreski ebatzen ez diren luzapen eskaerak ezetsizat hartuko dira.

Epea bete ez den biharamunetik aurrera hasiko da kontatzen luzapena.

3. Azalera eskubidea eskuratzea

Ohiko etxebizitzat hartzen dena gorabehera (jabetza osoaren beharra), etxebizitza izango den ondasun

higiezinaren azalera eskubidea eskuratzea etxebizitza erostearekin parekatuko da titularitate publikoko lurzoru baten gainean eratuta dagoenean.

4. Pertsona minusbaliatuek egokitze eta aldatze lan eta instalazioak egitea

Hemen sartzen dira ohiko etxebizitzan egokitze lan eta instalazioak egitea, etxearen eta kalearen artean nahitaezko pasabide gisa erabiltzen diren elementu komunak aldatzea, hala nola eskailerak, igogailuak, korridoreak, atariak edo beste edozein elementu arkitoniko, eta, halaber, desgaituen edo mendeko pertsonen komunikazio sentsorialaren oztopoak gainditu edo segurtasuna emateko balio duten dispositibo elektronikoa jartzea.

Era berean, errentari, azpierrenerari edo usufruktario gisa okupatutako etxebizitzetan egiten diren egokitze lan eta instalazioak kontzeptu honen barruan sartzen dira, obra horiek egiten dituztenak honako hauek direnean: zergadun desgaitua edo mendetasun egoeran dagoena, pertsona desgaitu edo mendeko batekin bizi den zergaduna –pertsona hori izan daiteke, aurreko edo ondorengo ahaide bat, ezkontidea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-laguna edo adingabeak babesteko gaietan aginpide duen entitate publikoaren adostasunez, tutoretzapean edo diru trukerik gabe etxean hartua duen pertsona bat–, pertsona desgaitu edo mendekoekin bizi izateagatik desgaitasunaren edo mendekotasunaren kenkaria aplikatzeko eskubidea duen zergaduna, eta ohiko etxebizitzaren elementu komunak aldatzeko lanak ordaintzera behartuta dauden jabekideak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren organo eskudunak, Migrazio eta Gizarte Zerbitzuetako Institutuak edo Autonomia Erkidegoko organoak ziurtatu egin beharko dute egokitze obra eta instalazio horiek beharrezkoak direla pertsona desgaituen irisgarritasuna eta komunikazio sentsoriala errazten dutelako eta duintasunez moldatzeko aukera ematen dietelako.

Aipatutako obrak ondoko hauek egingo dituzte:

- Zergadun desgaituak edo mendetasun egoeran dagoenak.
- Desgaitu batekin edo mendeko pertsona batekin bizi den zergadunak –desgaitua edo mendekoa izan daiteke aurreko edo ondorengo ahaide bat, ezkontidea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-laguna, edo adingabeak babesteko gaietan aginpide duen entitate publikoaren adostasunez, tutoretzapean edo diru trukerik gabe etxean hartua duen pertsona–.
- 65 urteko edo hortik gorako pertsona batekin bizi den zergadunak, haren mendetasun edo minusbaliotasun maila frogatzen duenean eta hirugarren pertsonengandik behar duen laguntza egiaztatzen duenean.
- Pertsona desgaitu edo mendekoarekin bizi den zergadunak, adineko pertsonen desgaitasunagatik edo mendekotasunagatik araututako kenkaria egiteko eskubidea ematen dionean.
- Beren ohiko etxebizitzaren elementu komunak aldatzeko lanak ordaintzera behartuta dauden jabekideak.

Zenbatekoa da kenkaria?

Zergadunek %18ko kenkaria egin dezakete ohiko etxebizitza erosteko zergaldian **inbertitutako kopuruengatik**, erosketa hori dela-eta haren kontura joan diren gastuak ere barne.

Era berean, ohiko etxebizitza erosteko besteren kapitalak erabili badira, zergadunek **%18ko kenkaria** egin dezakere zergaldian **ordaindutako interesengatik**, haien kontura joan diren besteren finantzaketak sortutako gastuak ere barne.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako kontzeptuen baturagatik **gehienez 1.530,00 euroko kenkaria** egingo da **urtean**.

Zergadunak **30 urte baino gutxiago dituenean, edo familia ugariaren titularra denean**, kenkaria **%23koa** izango da, eta **urtean 1.955,00 euro kendu ahal izango dira gehienez**.

Aurreko kenkaria zergadun bakoitzeko izango da.

Etxebizitza kontuan inbertitzen denean, ez da aplikatuko **%23ko** portzentaje hori, **%18** baizik.

OHARRA: 2012/01/01 BAINO LEHEN EROSITAKO ETXEBIZITZAK

Zergadunek **%18ko kenkaria** egin dezakete ohiko etxebizitza **erosteko** zergaldian **inbertitutako kopuruengatik**, erosketa hori dela-eta haren kontura joan diren gastuak ere barne.

Era berean, ohiko etxebizitza erosteko besteren kapitalak erabili badira, zergadunek **%18ko kenkaria** egin dezakere zergaldian **ordaindutako interesengatik**, haien kontura joan diren besteren finantzaketak sortutako gastuak ere barne.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako kontzeptuen baturagatik **gehienez 2.160,00 euroko kenkaria** egingo da **urtean**.

Zergadunak **35 urte baino gutxiago dituenean, edo familia ugariaren titularra denean**, kenkaria **%23koa** izango da, eta **urtean 2760,00 euro kendu ahal izango dira gehienez**.

Kreditu fiskala ezin da 36.000,00 euro baino handiago izan.

Aurreko kenkaria autolikidazio bakoitzeko izango da .

Arau berezia batera egiten den aitorpenean 30 urtetik gorako eta beherako zergadunak daudenean

Batera tributatzea aukeratzen bada eta ohiko etxebizitza erostegatik araututako kenkaria pertsona batek baino gehiagok egin dezakeenean, batzuk 30 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, **%23ko** portzentajea aplikatuko da, eta muga 1.955,00 eurokoa izango da

OHARRA: 2012/01/01 BAINO LEHEN EROSITAKO ETXEBIZITZEN KENKARIA

Kenkaria **%23koa** da, eta muga 2.760,00 eurokoa, 35 urtetik gorako zein beherakoentzat.

Arau berezia tartean erabaki judiziala dagoenean

Epailen erabakiz, zergaduna bakarrik baldin badago behartuta etxebizitza familiarrarengatik ohiko etxebizitzaren erosketan zergaldian inbertitutako kopuruetakoren bat ordaintzera, erosketaren gastuak barne, edo zergadun horrek bakarrik baldin badu ohiko etxebizitza erostean erabilitako besteren kapitalen interesak ordaintzeko obligazioa, finantzaketa horrek sortutako gastuak barne, zergadun horrek egin ahal izango du bere autolikidazioan apartatu honetan aipatzen den kenkaria. Obligazio hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzaren autolikidazioan egingo da norberari dagokion proportzioan, **%18ko** portzentajea eta 1.530,00 euroko muga aplikatuta.

OHARRA: 2012/01/01 BAINO LEHEN EROSITAKO ETXEBIZITZEN KENKARIA

Kenkaria **%18koa** da, eta muga 2.160,00 eurokoa.

Kreditu fiskala

Lehenago aipatu diren kontzeptuengatik zergadun bakoitzak zergaldi jarraituetan egindako kenkariaren baturak ezin du 36.000,00 euroko zifra gainditu. Dena den, zifra horri hauek gutxituko zaizkio, hala dagokionean:

- 8/1998 Foru Araua aplikatuta etxebizitzan inbertitzeagatik kendutako zenbatekoa.
- 10/2006 Foru Araua aplikatuta etxebizitzan inbertitzeagatik kendutako zenbatekoa.
- Halakorik izan bada, berrinbertsioagatik salbuetsitako ondare irabaziari **%15** edo **%18** aplikatuz ateratzen den emaitza.

Maileguen interes tasak mugatzeko klausulen itzulketarengatik jasotako kopuruaren tratamendu fiskala

Maileguen interes tasak mugatzeko klausulen itzulketarengatik jasotako kopuruaren tratamendu fiskala, kopuru horiek finantza entitateekin hitzartutako akordioetatik edo sententziak edo arbitraje laudoak betetzetik datozenean.

- Ez da integratuko zerga honen zerga oinarrian maileguen interes tasak mugatzeko klausulen aplikazioagatik finantza entitateei interesen kontzeptupean aurrez ordaindutako kopuruaren itzulketa, ezta kalte-ordain gisa dagozkien interesena ere, itzulketa hori finantza entitateekin hitzartutako akordioetatik datorrenean, eskudirutan egin edo bestelako konpentsazio neurrien bidez egin.
- Aurreko 1. apartatuan aurreikusitako itzulketa jasotzen duen zergadunak aurrez ordaindutako kopuruak zerga tratamendu hau izango dute:

o Aurreko ekitaldietan kopuru horiek sartu badira ohiko etxebizitza erostegatik aplikatutako kenkariaren oinarrian, galdu egingo da haiengatik kenkaria egiteko eskubidea, eta finantza entitatearekiko akordioa hitzartu den zergaldiko kuota likidoari zenbateko hauek bakarrik gehitu beharko zaizkio: zerga administrazioak zor tributarioa bidezko likidazioaren bitartez zehazteko duen eskubidea preskribatu ez den ekitaldietan bidegabe kendutako zenbatekoak, berandutze interesik aplikatu gabe . Aurreko paragrafoan aipatutako zenbatekoak ez zaizkio gehitu beharko kuota likidoari, baldin eta finantza entitateak, ukitutako zergadunarekin hala adostuta, zuzenean erabiltzen baditu zenbateko horiek ohiko etxebizitzaren erosketa finantzatu duen maileguaren tronkoa murrizteko.

o Kopuru horiek gastu kengarritzat hartu badira aurreko ekitaldietan, eta ekitaldi horiei dagokienez ez bada preskribatu zerga administrazioak zor tributarioa bidezko likidazioaren bidez zehazteko duen eskubidea, gastu kengarriak izateari utziko diote, eta ekitaldi horien itzulketa autolikidazio osagarria egin beharko da finantza entitatearekin hitzartutako akordioaren egunetik zerga hau autolikidatzeko hurrengo epea amaitu bitartean, zehapenik, berandutze interesik eta errekarigurik gabe.

o Zergadunak kopuru horiek ordaindu dituen ekitaldietan zerga honen autolikidazioa aurkezteko epea ez bada amaitu kopuru horiek itzultzeko akordioa finantza entitatearekin hitzartu baino lehen, ez kopuru horiek eta ez aurreko a) letrako bigarren paragrafoan aipatutakoak ez dira sartuko ohiko etxebizitzaren erosketarengatik aplikatzen den kenkariaren oinarrian, eta ez dira hartuko gastu kengarritzat.

- Aurreko apartatuetan xedatutakoa berdin aplikatuko da aurreko 1. apartatuan aipatzen diren kopuruaren itzulketa sententzia judizialak edo arbitraje laudoak exekutatuta edo betetzearen ondorio denean

12.6 Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak

Apartatu honetan hiru kenkari hauek arautzen dira:

- Kenkaria inbertsio eta bestelako jarduerengatik.
- Kenkaria langileek enpresan parte hartzeagatik.
- Kenkaria jarduera ekonomiko baten hasieran inbertitzeko kreditu entitateetan egindako gordailuengatik.

12.6.1 Kenkaria inbertsio eta bestelako jarduerengatik.

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek zuzeneko zenbatespenaren erregimena erabiltzen badute beren etekinak kalkulatzeko, Sozietateen gaineko Zergaren araudiak aktibo finko material berrietan inbertsioak hobaritzeko eta zenbait jarduera burutzeko jasotzen dituen kenkariak aplikatu ahal izango dituzte, beti ere araudi horretan ezartzen diren portzentaje eta muga berdinekin.

Hona hemen kenkariak:

- Kenkaria aktibo ez-korrante berrietan inbertitzeagatik.
- Kenkaria zinemagintzan edo audiobisualean nahiz liburugintzan inbertitzeagatik.
- Kenkaria ikerketa eta garapen jarduerak egiteagatik.
- Kenkaria berrikuntza jarduerengatik.
- Kenkariak garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzera bideratutako proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatik.
- Kenkaria enplegua sortzeagatik.
- Kenkaria ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzeagatik.

Azter ditzagun banan-banan.

12.6.1.1 Kenkaria aktibo ez-korrante berrietan inbertitzeagatik (makinak, ibilgailuak...)

Zenbatekoa da kenkaria?

Entitatearen jarduera enpresariari atxikita dauden aktibo ez-korrante berrietan inbertitzeagatik %10eko kenkaria egiten da. Lurrak ez dira aktibo horien artean sartzen.

ERNE: beste pertsona edo entitate batek aldeztu aurretik erabili ez duena da aktibo ez-korrante berria. Hau da, aktibo bat ez da berria izango aurretik beste pertsona edo entitate baten ibilgetuan egon bada edo Kontabilitate Plan Orokorren arabera hor sartuta egon behar bazuen, nahiz eta aktibo hori inoiz martxan jarri ez.

Baldintza

- Inbertsioa jasotzen duten elementuek ez dute Zenbait Garraio bideren gaineko Zerga Berezian tributatu behar, dela hari lotuta ez daudelako, dela salbuetsita daudelako.

Izaera orokorrean, aktibo ez-korrantearen elementuetan egiten diren inbertsioak, dela artikulu honetan jasotakoak dela sozietateen gaineko zergaren gainerako araudian aipatuak, martxan noiz jartzen diren, orduan joko dira egindakotzat.

Dena den, iraupen luzeko inbertsio proiektuak egiten direnean, hau da, ondasunak enkargatzen direnetik eskura jartzen diren egunera arte hamabi hilabetetik gorako denbora igaror

tzen denean, subjektu pasiboak ordainketak egin ahal izan du egindakotzat inbertsioa, horien zenbateko berean. Horrelakoetan, inbertsio ondasunen hornitzailearekin kontratua formalizatzean indarrean zegoen kenkari erregimena aplikatuko da.

Aukera horretaz baliatuz gero, inbertsio guztiari aplikatuko zaio irizpide hori.

Aukera horretaz baliatu nahi den subjektu pasiboak idatziz jakinarazi beharko dio Foru Aldundiari erabaki hori, eta hila-beteko epea izango du horretarako, kontratua izenpetzen den egunetik aurrera. Bertan, kontratatutako inbertsioaren zenbatekoa eta ondasunak entregatu eta ordaintzeko egutegia adierazi beharko ditu. Era berean, jakinarazpen horri kontratuaren kopia erantsi beharko zaio.

% **5eko** kenkaria aplikatzeko eskubidea emango dute, aurreko idatz-zatian ezarritako betekizunak beteta aktibo finkoetan inbertitzen diren kopuruek kuota likidoan, ondoko kasuetan:

- a) Zergadunak bere aktibo finkoko elementuetan egiten duen inbertsioa hobekuntza moduan agertzen da kontabilitatean.
- b) Eragiketa-errentamenduetan, errentariak errentatutako eta lagatako elementuan egiten dituen inbertsioak.

Erregela

Apartatu honetan aipatzen den kenkariak gozatzeko, honako erregela hartu behar da kontuan:

Kenkariaren aplikazioa bateraezina izango da inbertsio horiek direla-eta izan litekeen beste edozein zerga onurarekin, amortizazio askatasunari, amortizazio azkartuari eta amortizazio bateratuari dagokienean izan ezik.

12.6.1.2 Kenkaria zine edo ikus-entzunezko produkzioetan eta liburugintzan inbertitzeagatik.

Zenbatekoa da kenkaria?

- Produkzio espainiarreko zine luzemetraietan edo fikzio, animazio edo dokumental moduko ikus-entzunezkoetan egindako inbertsioek %30eko kenkaria dute produktorearentzat, beti ere serieko produkzio industrialaren aurretik euskarri fisiko bat egiteko aukera ematen badute. Kenkariaren oinarria produkzioaren kostua izango da, koproduktore finantzarioak finantzatutako zatia kenduta.
- Liburugintzan inbertitzeak %5eko kenkaria izango du, serieko produkzio industrialaren aurretik euskarri fisiko bat egiteko aukera ematen badute.

12.6.1.3 Kenkaria ikerketa eta garapen jarduerak egiteagatik.

Zenbatekoa da kenkaria?

Ikerketa eta garapen jarduerengatik zergaldian izandako gastuek %30eko kenkaria izango dute. Gainera, ekitaldian izandako gastuak aurreko bi urteetako batez bestekoa baino handiagoak badira, %30a batez besteko horretaraino aplikatuko da, eta batez besteko horren gainean dagoen soberakinari %50eko kenkari osagarria egin ahal izango zaio.

Gainera, zergaldian izandako gastuek beste %20eko kenkaria izango dute honako gastu hauek direnean:

- a) Entitateko langileria gastuak, bakar-bakarrik ikerketa eta garapen jarduerari, lotuta dauden ikerlari kualifikatuei dagozkienean.

- b) Ikerketa eta garapen proiektuetan egindako gastuak, hauekin kontratatuta daudenean: unibertsitateekin, ikerkuntzako organismo publikoekin edo berrikuntza eta teknologia zentroekin, Berrikuntza eta teknologia zentroi buruzko abenduaren 20ko 2.609/1996 Errege Dekretuaren arabera horrela aitortu eta erregistratuta daudenean, eta, orobat, Eusko Jaurlaritzaren urriaren 1eko 221/2002 Dekretuak araututako Euskal Teknologia Sarean sartutako entitateekin. Azken dekretu horrek egunean jarri zituen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea arautzeko oinarriak.

Ibilgetu material eta ukiezineko elementuetan egindako inbertsioen %10, ondasun higiezinak eta terrenoak kanpoan utzita, baldin eta bakar-bakarrik ikerketa eta garapen jarduerari, atxikita badaude.

Zer da ikerketa eta garapen jarduerak?

- Jakintza berriak aurkitzeko eta zientzian edo teknologian goi ulerkuntza bilatzeko egiten den “**oinarri-zko ikerkuntza**” edo azterlan original eta planifikatua, betiere merkataritza edo industria helburuetatik kanpokoa.
- Jakintza berriak aurkitzeko egiten den “**ikerkuntza aplikatua**” edo azterlan original eta planifikatua, betiere ezagutza horiek produktu, prozesu edo zerbitzu berriak garatzen edo lehendik daudenak nabarmen hobetzen erabiltzekoa bada.
- Ikerkuntza aplikatuaren emaitzen “**garapen esperimental**” edo produktu, prozesu edo zerbitzu berrien plan, eskema edo diseinu batean aplikatutako ikerkuntzaren gauzatzea, edo emaitza horien hobekuntza nabarmena, bai eta merkaturatu ezin diren prototipoen sorrera eta hasierako erakusketarako proiektuak edo proiektu aitzindariak ere, baldin eta aplikazio industrialarako edo merkataritzako ustiapenerako bihurtu edo erabili ezin badira.
- **Software** aurreratuaren sorkuntza, baldin eta horrek aurrerapen zientifikoa edo teknologikoa nabarmena badakar, dela teorema eta algoritmo berriak garatuz dela sistema eragile eta lengoia berriak sortuz, edota pertsona desgaituaren informazioaren gizarteko zerbitzuetara sartzeko egiten bada. Softwarearekin erlazionatuta dauden ohiko edo betiko jarduerak hortik kanpo geratzen dira.

Zer hartzen da ikerketa eta garapen gastutzat?

Zergadunak egindakoak, jarduera horiei atxikitako ondasunen amortizazioak barne, baldintza hauek betetzen badira:

- Ikerketa eta garapen jarduerari zuzenean lotutako gastuak izatea.
- Jarduera horiek egiteko benetan erabiltzea.
- Proiektuak indibidualizatuta agertzea.

Europar Batasuneko edo Europako Espazio Ekonomikoko beste estatu batzuetan egindako jarduerari dagozkien ikerkuntza eta garapen gastuak ere kenkarirako eskubidea izango dute.

Europar Batasunekoak edo Europako Espazio Ekonomikokoak ez diren estatu batean egindako jardueren gastuak dagozkien, kenkarirako eskubidea ere izango dute, baldin eta ikerkuntza eta garapeneko jarduerak nagusia Europar Batasuneko estatu batean egiten bada eta gastuak inbertsio osoaren %25 baino handiagoak ez badira.

Ikerkuntza eta garapeneko gastutzat hartuko dira, era berean, jarduerak horiek Europar Batasuneko edo Europako Espazio

Ekonomikoko estatu batean egiteko asmoz zergadunaren aginduz ordaindutako kopuruak, dela berak zuzenean dela beste entitate batzuekin batera.

12.6.1.4. Kenkaria berrikuntza jarduerak egiteagatik.

Honako hau hartzen da berrikuntzat: produktu berriak (ondasun edo zerbitzuak) edo prozesu berriak zein nabarmenki hobetuak ezartzea, eta marketing metodo berriak edo antolaketa eredu berriak abian jartzea. Errealitatea auzitan jartzea eta eraldatzea ahalbidetzen duen jarrera da gaitasun horren oinarria.

Berrikuntza teknologikoa:

Zenbatekoa da kenkaria?

Berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteak eskubidea emango du kuota likidoan % 15eko kenkaria aplikatzeko hurrengo b) eta c) letretan azaldutako kasuetan, eta % 20ko kenkaria, aldiz, hurrengo a) eta d) letretan azaldutako kasuetan.

- a) Ondoko hauekin kontratatutako proiektuak: unibertsitateekin, ikerkuntzako organismo publikoekin edo berrikuntza eta teknologia zentroekin, Berrikuntza eta teknologia zentroi buruzko abenduaren 20ko 2.609/1996 Errege Dekretuaren arabera horrela aitortu eta erregistratuta daudenean, eta, orobat, Eusko Jaurlaritzaren urriaren 1eko 221/2002 Dekretuak araututako Euskal Teknologia Sarean sartutako entitateekin. Azken dekretu horrek egunean jarri zituen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea arautzeko oinarriak.
- b) Produkzio prozesuen diseinu industrialak eta ingeniari-tza. Horien barruan sartuko dira produktu bat fabrikatu, probatu, instalatu eta erabiltzeko beharrezkoak diren deskripzio elementu, zehaztapen tekniko eta funtzionamendu ezaugarriak definituko dituzten plano, marrazki eta euskarriak sortu eta elaboratzea, eta ehunen lagindegia prestatzea.
- c) Teknologia aurreratu eskuratzea patente, lizentzia, know-how eta diseinu moduan. Zergadunarekin zer ikusia duten pertsona edo entitateei ordaindutako kopuruek ez dute kenkarirako eskubiderik emango. Kontzeptu honi dagokion oinarria ezin da izan milioi bat eurotik gorakoa.
- d) Kalitatea ziurtatzeko ISO 9000 serieko, ISO 14000, GMP araua edo antzeko arauak betetzearen ziurtagiria lortzea, arau horiek ezartzeko behar diren gastuak sartu gabe.

Zer da berrikuntza teknologikoa?

- Produktu edo produkzio prozesu berriak lortzeko edo jadanik daudenak teknologikoki nabarmen hobetzeko egiten den jarduerari esaten zaio horrela. Jarduera horren barruan sartuko da produktu edo prozesu berriak plan, eskema edo diseinu batean gauzatzea, bideragarritasun azterketak egitea, prototipoak sortzea eta hasierako erakusketarako proiektuak edo proiektu aitzindariak eta ehunen lagindegia egitea, bai eta aplikazio industrialarako edo merkataritzako ustiapenerako bihurtu edo erabili daitezkeenak ere.
- Diagnostiko teknologikoko jarduerak ere haren barruan sartzen dira unibertsitateek, ikerkuntzako organismo publikoek, berrikuntza eta teknologia zentroek (hala aitortu eta erregistratuta badaude) eta Teknologiararen Euskal Sarean erregistratutako entitateek egiten dituztenean soluzio teknologikoa aurreratuak

identifikatu, definitu eta orientatzeko asmoz, horien emaitzak zeinahi direla ere.

Zer hartzen da berrikuntza teknologikoko gastutzat?

Zergadunak egiten dituenak, baldintza hauek betetzen badira:

- Gastu horiek berrikuntza teknologikoko jarduerekin zuzenean lotuta egotea.
- Jarduera horiek egiteko benetan erabiltzea.
- Proiektuka indibidualizatuta agertzea.

Europar Batasuneko edo Europako Espazio Ekonomikoko ibeste estatu batzuetan egindako jardueri dagozkien berrikuntza teknologikoko gastuek ere kenkarirako eskubidea izango dute.

Europar Batasunetik edo Europako Espazio Ekonomikotik kanpoko estatuetan egindako jardueren gastuei dagokienez, kenkarirako eskubidea ere izango dute, baldin eta berrikuntza teknologikoko jarduera nagusia Europar Batasuneko edo Europako Espazio Ekonomikoko estatu batean egiten bada eta gastuen zenbatekoa inbertsio osoaren %25 baino handiagoa ez bada.

Berrikuntza teknologikoko gastutzat hartuko dira, era berean, Europar Batasuneko edo Europako Espazio Ekonomikoko estatu batean jarduera horiek egiteko ordaindutako kopuruak, betiere zergadunaren aginduz ordaindu badira, dela banaka dela beste entitate batzuekin batera.

OHARRA: Zer ez da hartzen ikerketa eta garapen jardueratzat edo berrikuntza jardueratzat?

- Berekin berritasun zientifiko edo teknologiko esanguratsurik ez dakarten jarduerak. Bereziki, hauek: produktu edo prozesuen kalitatea hobetzeko ohiko ahaleginak egitea, lehendik dagoen produktu bat edo produkzio prozesu bat bezeroak edo araudi aplikagarriak ezarritako beharkizunetara egokitzea, aldizkako edo denboraldiko aldaketak egitea, eta lehendik dauden produktuaren antzeko beste batzuetatik bereizteko aldaketa estetiko edo txikiak egitea.
- Industria produzitu, zerbitzuak hornitu edo ondasun eta zerbitzu banatzeko jarduerak. Bereziki, ondoko hauek sartzen dira: produkzio jarduera planifikatzea; produkzioa prestatu eta abian jartzea, barne hartuta lan tresnen doikuntza eta berrikuntza teknologikoari buruzko 12.6.1.4. apartatuan azaldutakoez bestelako jarduerak; ikerkuntza eta garapen jarduera edo berrikuntza jarduera bezala sailkatutako jardueri atxikita ez dauden produkziarako instalazio, makina, ekipo eta sistemak eranstea edo aldatzea; etendako produkzio prozesuetako arazo teknikoak konpontzea; kalitatearen kontrola eta produktu eta prozesuen normalizazioa; gizarte zientzien alorreko prospekzioa eta merkatu azterketak; merkaturatzeko sareak edo instalazioak ezartzea; jarduera horiekien loturiko langileak trebatu eta prestatzea.
- Mineral eta hidrokarburoen miaketa, zundaketa edo prospekzioa.

ERNE: Kenkari hauek aplikatzeko, zergadunek legez erabakitzen den organoak egindako txosten arrazoitua aurkeztu dezakete, zergadunaren jarduerak ikerkuntza eta garapen bezala edo berrikuntza bezala –hurrenez hurren– kalifikatzeko eskatzen diren betebeharrak zientifiko eta teknologikoak betetzeari buruz. Kasu batean zein bestean, aurreko zazpi paragrafoetan xedatutakoa hartu beharko da kontuan. Esandako txostenean, jarduera horiei egotzitako gastu edo inbertsioen zenbatekoa zehaztu beharko da.

12.6.1.5 Kenkariak garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorrago lortzera bideratutako proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatik.

Teknologia Garbien Euskal Zerrenda:

Zenbatekoa da kenkaria?

- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren Aginduak, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartzeak, aipatzen dituen ekipo osoetan egindako inbertsioengatik %30eko kenkaria aplikatzen da.

Baldintzak

- Kenkarirako eskubidea eduki ahal izateko, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartzen duen Aginduak definitutako ekipo osoetan inbertitu behar da.
- Finantza errentamenduko erregimenean egindako inbertsioak kengarriak izango dira.
- Kenkaria subjektu pasiboak aplikatuko du, eta Zerga Administrazioak hala eskatzen badiu, ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, Eusko Jaurlaritzako dagozkion Sailak emana, egindako inbertsioak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren Aginduak, Teknologia Garbien Euskal Sarea onartzeak, aipatzen dituen ekipo osoetan burutu direla frogatzeko.
- Inbertsioa izan duten aktiboek edo ondare elementuek gutxienez bost urtez (edo, ondasun higigarriak badira, hiru urtez) egon beharko dira funtzionatzen eta ingurumenaren artapen eta hobekuntzari lotuta, haien balio bizitza laburragoa denean salbu. Tarte horretan ezin dira eskualdatu, errentan eman edo hirugarrenek erabiltzeko laga, justifikatutako galerak daudenean izan ezik. Dena den, inbertsioaren xede diren aktiboak epe laburragoan egon daitezke funtzionamenduan, betiere hiru hilabete epean haien lekua kenkari hau aplikatzeko baldintzak betetzen dituzten beste batzuek hartzen badute.
- Epe horretan zergadunak inbertsioaren xede diren ondasunak desafektatu, laga, errentan eman edo saltzen baditu, horrek berarekin ekarriko du kenkaria aplikatzean bere unean ordaindu ez zituen kuotak deingorrez ordaindu behar izatea dagozkion berandutza interesekin batera. Ezarritako obligazioa bete ez den ekitaldian egingo da ordainketa.
- Nolanahi ere, iritziko da ez dagoela desafektaziorik inbertsioaren xede diren ondasunak alokatu edo hirugarrenei erabiltzeko laga zaizkienean, ondoko hiru baldintzak betetzen badira: zergadunak, ustiapen ekonomiko bat dela medio, aktiboak alokatzen edo hirugarrenei erabiltzeko lagatzen jardutea, ondasun horien errentari edo lagapen-hartzaileekin loturirik ez izatea, sozietateen gaineko zergaren araudiko 16. artikuluan azaldutako zentzuan, eta finantza errentamenduko eragiketak ez izatea.
- Orobat, ulertuko da ez dagoela desafektaziorik kenkari honetara bildutako aktiboak hirugarrenei laga zaizkienean legeak hala aginduta.
- Ez da kenkaria egiteko eskubiderik izango inbertsio berberei beste zerga onura batzuk aplikatzen zaizkienean, honako hauek izan ezik:
 - Amortizazio askatasuna.
 - Amortizazio azkartua.
 - Amortizazio bateratua.
- Kenkari hau bateraezina da jarraian arautzen denarekin.

Kutsaduraren eragina murriztu eta zuzentzeko inbertsioak:

Zenbatekoa da kenkaria?

%15 kentzen da inbertsioak honako hauek direnean:

- 1 Ibilgetu ukiezineko aktibo berriak eta Euskal Herriko organismo ofizialek onartutako proiektuen ondorioz ekitaldian kutsatu diren lurzorua garbitzeko gastuak.
- 2 Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, ondoren adierazten diren helburuetako bat edo batzuk dituzten proiektuak gauzatzeko beharrezkoak badira, betiere garapen iraunkorren eta ingurumenaren babes eta hobekuntzaren arloan:
 - a) Hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta balioztatzea.
 - b) Mugikortasuna eta garraio iraunkorra.
 - c) Naturaguneetako ingurumena leheneratzea, konpentsazio neurriak edo bestelako borondatezko ekintzak gauzatzearen ondorioz.
 - d) Ur kontsumoa minimizatzea eta ura araztea.
 - e) Energia berriztagarriak erabiltzea eta energia eraginkortasunez baliatzea.

Baldintzak

- Aurreko 1. puntu aipatzen den kenkaria zergadunak aplikatuko du. Horretarako, Zerga Administrazioak eskatzen dienez, ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailak emana, frogatuta uzteko 1. puntu horretan ezarritako baldintzak betetzen direla.
- Aurreko 2. puntu aipatzen den kenkaria zergadunak aplikatuko du. Horretarako, eta Zerga Administrazioak hala eskatzen dienez, Gipuzkoako Foru Aldundian ingurumen arloan eskumena duen departamentuaren ziurtagiria aurkeztu behar du, inbertsioek 2. puntu horretan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela frogatzeko.
- Finantza errentamenduko erregimenean egindako inbertsioak kengarriak izango dira.
- Inbertsioa izan duten aktiboek edo ondare elementuek gutxienez bost urtez (edo, ondasun higigarriak badira, hiru urtez) egon beharko dira funtzionatzen eta ingurumenaren artapen eta hobekuntzari lotuta, haien balio bizitza laburragoa denean salbu. Tarte horretan ezin dira eskualdatu, errentan eman edo hirugarrenek erabiltzeko laga, justifikatutako galerak daudenean izan ezik. Dena den, inbertsioaren xede diren aktiboak epe laburragoan egon daitezke funtzionamenduan, betiere hiru hilabeteko epean haien lekua kenkari hau aplikatzeko baldintzak betetzen dituzten beste batzuek hartzen badute.
- Epe horretan zergadunak inbertsioaren xede diren ondasunak desafektatu, laga, errentan eman edo saltzen baditu, horrek berarekin ekarriko du kenkaria aplikatzean bere unean ordaindu ez zituen kuota derigorrez ordaindu behar izatea dagozkion berandutza interesekin batera. Ezarritako obligazioa bete ez den ekitaldian egingo da ordainketa.
- Nolanahi ere, iritziko da ez dagoela desafektaziorik inbertsioaren xede diren ondasunak alokatu edo hirugarrenei erabiltzeko laga zaizkienean, ondoko hiru baldintzak betetzen badira: zergadunak, ustiapen ekonomiko bat dela medio, aktiboak alokatzen edo hirugarrenei erabiltzeko lagatzen jardutea, ondasun horien

errentari edo lagapen-hartzaileekin loturarik ez izatea, sozietateen gaineko zergaren araudiko 16. artikuluan azaldutako zentzuan, eta finantza errentamenduko eragiketarik ez izatea.

- Orobat, ulertuko da ez dagoela desafektaziorik kenkari honetara bildutako aktiboak hirugarrenei laga zaizkienean legeak hala aginduta.
- Ez da kenkaria egiteko eskubiderik izango inbertsio berberei beste zerga onura batzuk aplikatzen zaizkienean, honako hauek izan ezik:
 - Amortizazio askatasuna.
 - Amortizazio azkartua.
 - Amortizazio bateratua.
- Kenkari hau bateraezina da gorago araututakoarekin.

12.6.1.6 Kenkaria enplegua sortzeagatik.

Zenbatekoa da kenkaria?

4.900,00 euro kendu daitezke zergaldian mugagabeko lan kontratuz kontrataturiko pertsona bakoitzagatik.

Kopuru hori 4.900,00 euro handiagoa izango da, baldin eta kontratatutako pertsona lan merkatura sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako bada, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, kenkariaren zenbatekoa langileak lanaldi osoarekiko egiten duen lan denboraren arabera kalkulatu da.

Kenkaria aplikatzeko ezinbestekoa da kontratazioa egiten den zergaldiaren amaieran lan-kontratu mugagabea duten langileen kopurua ez murriztea hurrengo bi urteetan amaitzen diren zergaldietan. Gainera, kopuru horrek kenkaria sortu den zergaldiaren hasierakoa baino handiagoa izan behar du, gutxienez, kenkaria aplikatzeko eskubidea eman duten kontratuen kopuru berdinean.

Gainera, aipatzen den langileen kopuruak (azken ekitaldiko lan-kontratu mugagabea duten langileak) kontratazioak egin aurreko zergaldikoa baino handiagoa izan behar du, gutxienez, kenkaria aplikatzeko eskubidea eman duten kontratuen kopuru berdinean.

12.6.1.7 Kenkaria ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzeagatik.

Zerga honen zergadunek edo establezimendu iraunkorrek diharduten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek parte hartzen badute beste zergadun batzuek egindako ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan eta proiektu horiek bete egiten badituzte foru arau honetako 62.etik 64.era bitarteko artikuluetan ezarritako kenkarietarako eskubidea izateko artikulua horietan bertan ezartzen diren baldintzak, bada, orduan, zergadunok eskubidea izango dute kenkaria egiteko beren kuota likidoan, artikulua honetan ezarritako baldintza eta betekizunekin; nolahi ere, kenkari hori bateraezina izango da, osorik edo zati batean, zergadunok manu horietan ezarritakoaren ondorioz aplikatu litezkeen kenkariekin.

Artikulu honetan ezarritakoa aplikatzeko, beharrezkoa da bai ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duten zergadunek bai haren finantzaketan parte hartzen duten zergadunek aurretik finantzaketa kontratu bat izenpetzea, non, besteak beste, honako hauek zehaztu behar dituzten:

- a) Zer zergadunek parte hartuko duten proiektuan.
- b) Ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuaren deskripzioa.
- c) Proiektuaren aurrekontua.
- d) Proiektua nola finantzatuko den, eta bereizita adierazi behar da zer zenbateko jarriko dituen proiektua egiten duen zergadunak, zer zenbateko jarriko dituen proiektuaren finantzaketan parte hartuko duen zergadunak eta zer zenbateko dagozkien finantza erakundeen kredituei, diru laguntzei eta bestelako babes neurriei.
- e) Erregelamendu bidez zehazten diren gainerako guztiak.

Proiektuaren finantzaketan parte hartzen duten zergadunek ezingo dute inoiz eskuratu proiektuaren emaitzen gaineko jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubiderik, ez eta beste modu bateko eskubiderik ere; izan ere, eskubide horien gaineko jabetza beti izan behar da proiektua egiten duen zergadunarena.

Zergadunek artikuluko honetan ezarritako araubidea aplikatzea aukeratzen badute, ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak ez du eskubiderik izango 12.6.1.3 eta 12.6.1.4 ataletako kenkariak aplikatuko, eta, haien ordez, proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak eskubidea izango du bere autolikidazioan egiaztatzeko xedapen horietan ezarritako kenkaria; kenkariaren zenbatekoa, berriz, proiektua egiten duen zergadunari aplikatuko litzazkiokkeen baldintza beretan kalkulatu da.

Aurretik jasotakoa jasota ere, proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak kuotan gehienez ere aplika dezakeen kenkariaren zenbatekoa hau da: zergadunak berak proiektua finantzatzeko ordaindutako zenbatekoa bider 1,20 eginez ateratzen den zenbatekoa. Soberakina, egonez gero, ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak berak aplikatu ahal izango du.

Ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak kenkari honen aplikazioa kontuan hartu beharko du, foru arau honetako 59. artikuluko 3. apartatuan jasotako gutxienezko tributazioko erregelaren ondorioetarako eta 67. artikuluko 1. apartatuan zehaztutako baterako mugaren aplikazioaren ondorioetarako.

Artikulu honetan ezarritakoa aplikatzeko, finantzaketa kontratua sinatu aurretik nahitaez lortu behar da foru arau honetan aipatzen den txosten arrazoitua. txosten hori, ondoren, kontratuarekin batera, komunikazio batean aurkeztu behar zaio Zerga Administrazioari, ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak zein haren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak sinatuta, proiektua garatzen hasiko den zergaldia amaitu baino lehen, eta erregelamenduz ezartzen den eran aurkeztu behar da.

12.6.1.8 Apartatu honetan aztertutako kenkarietarako baterako arauak

Aurreko kenkariak aplikatzeko mugak

Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotzen diren zerga onurak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren foru arauan ezarrita dauden muga eta portzentaje berdinekin aplikatuko dira. Hala ere, esan behar da muga horiek Errenta Zergaren kuota osoari aplikatuko zaizkiola jarduera ekonomikoaren etekinek –zuzeneko zenbatespenaren metodoan kalkulatuak osatutako zerga oinarri orokorraren zatiarekin bat datozenean.

Jarraian aipatzen diren kenkariaren batura **ezin da**, kasu honetan, **kuota osoaren %45 baino handiagoa izan**:

- Kenkaria aktibo ez-korronte berrietan inbertitzeagatik.
- Kenkaria zine edo ikus-entzunezko produkzioetan nahiz liburugintzan inbertitzeagatik.

- Kenkaria garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzera zuzentzen diren proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatik.
- Kenkaria enplegua sortzeagatik.
- Kenkaria ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuak finantziatzeagatik.

Honako kenkari hauek, ordea, **ez dute muga hori**:

- Kenkaria ikerkuntza eta garapen jarduerengatik.
- Kenkaria berrikuntza teknologikoko jarduerengatik.
- Kenkaria ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuak egiteagatik.

Kuota osoa txikiegia izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak

Kuota osoa txikiegia izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak, hurrengo HAMABOST urte jarraituetan amaitzen diren zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira, baina muga berdinak errespetatuz beti.

Kenkari hauek aplikatzean kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk

Hitzartutako kontraprestazio osoa sartuko da kenkariaren oinarrian, interesak, zeharkako zergak eta horien errekarguak kanpo utzita, horiek ez baitira konputatuko haren barruan, aktiboak edo, hala badagokio, gastuak baloratzeko kontuan hartzea eragotzi gabe.

Aurreko paragrafoa xedatutakoa hala izanik ere, sortzen diren kostuak baldin badatoz aipatutako kenkariak aplikatzeko eskubidea ematen duten aktiboak desegiteak dakartzan obligazioengatik, kostu horiek ez dira sartuko 12.6.1 puntuan aurreikusitako kenkariaren oinarrian, kontuan izan gabe aktiboak baloratzeko aintzat hartzen diren edo ez.

Errentamendu operatiboen kasuan, errentatzaileak errentan eman duen edo erabiltzeko laga duen elementuan inbertsio bat egiteagatik agerian jartzen diren aktiboek ez dute kenkari hauek aplikatzeko eskubiderik emango aktibo finkoetan inbertitzeagatik %5eko kenkaria aplikatzen den kasuetan salbu.

Urtarrilaren 17ko 3/2014, Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 27.5^a. hiru artikuluan dauden ibilgailuak izango dira kenkari hau aplikatu ahal izango duten bakarrak.

Kenkariaren oinarria, horrela kalkulatu, ezin izango da izan merkatuan egoera normalean eta pertsona independenteen artean adostuko zen prezioa baino handiagoa.

Inbertsioak ondasun higiezinak badagozkie, lurzorua baliatzea betiere kenkariaren oinarritik kanpo utziko da.

Halaber, aipatutako oinarritik kendu egingo da, hala badagokio, lehen aipatutako kenkariak dagozkien inbertsioetarako edo jardueren sustapenerako jasotako kapital nahiz ustiapen diru laguntzen gainean ondoko portzentajea aplikatuta ateratzen den zenbatekoa: 100en eta zergadunari aplikatzeko zailtasun zerga tasaren arteko diferentzia.

Aipatutako kenkariaren oinarriaren barruan sartzen diren kopuru guztiak ibilgetu moduan edo, hala badagokio, gastu moduan kontabilizaturik egon beharko dira, Kontabilitate Plan Orokorreko arauak jarraituz.

Oro har, inbertsioak egindakotzat joko dira funtzionamenduan jartzen diren unean.

Hala ere, epe luzerako inbertsioetan (hamabi hilabete baino gehiago igaro direnean ondasunak enkargatu zirenetik eskuan izan arte) zergadunak erabaki dezake inbertsioa ordainketak egin ahal eta horien zenbatekoaz egindakotzat ematea, inber-

tsio ondasunen hornitzailearekin kontratua sinatu zen egunean indarrean zegoen kenkariaren arabidea aplikatuz.

Aukera horretaz baliatuz gero, inbertsio guztiari aplikatuko zaio irizpide hori.

Aukera horretaz baliatu nahi duen zergadunak Ogasun eta Finantza Departamentuari emango dio horren berri, hilabeteko epearen barruan, kontratuaren datatik aurrera. Jakinarazpenean, kontratatutako inbertsioaren zenbatekoa zehaztu beharko du, baita ondasunak entregatu eta ordaintzeko egutegia ere. Era berean, jakinarazpen horri kontratuaren kopia erantsi beharko zaio.

Bestalde, apartatu honetan aztertutako kenkariaren xede diren aktibo edo ondare elementuek gutxienez bost urtez egon behar dute funtzionatzen zergadun beraren enpresan, kenkari bakoitzean aurreikusitako helburuei atxikita, (ondasun higigarriak badira, hiru urtez), ondasun horien balio bizitza laburragoa denean salbu. Tarte horretan ezin dira eskualdatu, errentan eman edo hirugarrenek erabiltzeko laga, justifikatutako galerak dandean izan ezik. Elementu horiek desatxiki, eskualdatu, alokatu edo lagatzeak, edo adierazitako epea amaitu baino lehenago ezarritako helburuetatik desatxikitzeak, bere garaian egindako kenkariengatik ordaindu ez ziren kuotak —dagozkion berandutza interesekin— ordaintzeko beharra ekarriko du. Berandutza interesak, egoera hori gertatzen den ekitaldiko autolikidaziotik ateratzen den kuotari gehitu beharko zaizkio.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, kenkarigai den inbertsioa gauzatzen den aktiboak hartan ezarritako epea baino denbora gutxiagoz egon daitezke, baldin eta haien orde, hiru hilabeteko epean, kenkarirako eskubidea kreditatzen duten betebeharrak eta baldintzak betetzen dituzten beste batzuk ipintzen badira.

Nolanahi ere, iritziko da ez dagoela afektaziorik inbertsioaren xede diren ondasunak alokatu edo hirugarrenei erabiltzeko laga zaizkienean, ondoko hiru baldintzak betetzen badira: zergadunak, ustiapen ekonomiko bat dela medio, aktiboak alokatzen edo hirugarrenei erabiltzeko lagatzen jardutea, ondasun horien errentari edo lagapen-hartzaileekin loturarik ez izatea, sozietateen gaineko zergaren araudiko 42. artikuluan azaldutako zentzuan, eta finantza errentamenduko eragiketak ez izatea.

Gastu edo inbertsio berak ezin du berarekin ekarri kenkaria jarduera bati baino gehiagori aplikatzea, ez eta jarduera berean kenkari desberdinak aplikatzea ere.

Hemen aztertutako kenkariak bateraezinak izango dira inbertsio eta gastu berekin loturiko beste edozein zerga onurarekin, amortizatze askatasunari, amortizazio azkartuari eta amortizazio bateratuari dagokienean izan ezik.

LABURPENA: jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak	
Aktibo ez-korrante berrietan egindako inbertsioak	%10 - %5
Zine edo ikus-entzunezko espainiar produkzioak eta audiodibisualak	%30
Liburugintza	%5
Ikerketa eta garapena	%30 Aurreko bi urteetan egindako gastuen batez bestekoaren soberrakinaren %50. Ikertzaile kualifikatuentzat izandako langileria gastuen %20 Ikerketa eta garapen jardueren lotutako ibilgetu material eta ukiezineko elementuetan inbertitutakoaren %10.
Berrikuntza teknologikoa	%15 - %20

Garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorrago lortzera bideratutako proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuak	Teknologia Garbien Euskal Zerrenda: %30	
	Lurzoru kutsatuak, etab... garbitzeko inbertsioak: %15	
Enplegua sortzea	4.900,00 €	9.800,00 €
Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea.	I+D+Iko kenkariak	

12.6.2 Kenkaria langileek enpresan parte hartzeagatik

Zergadunek 100eko **15eko kenkaria** egin ahal izango dute, gizonetako kasuan, eta **100eko 20koa**, emakumeetako kasuan, zergaldian zehar eskudirutan ordaindutako kopuruengatik, kopuru horiek ondoren aipatzen diren entitateetako akzio edo partaidetzak eskuratu edo harpidetzeko erabiltzen dituztenean:

- Langileek lan egiten duten entitatea, betiere eskurapena egin aurreko bost urteetatik gutxienez hirutan bertan lan egindakoak badira.
- Langileek lan egiten duten entitatearen taldeko edozein entitate. Kasu honetan, ezinbesteko beharkizuna izango da eskurapena egin aurreko bost urteetatik gutxienez hirutan jardun izana langileek taldeko entitateetan, eta, ondorio horietarako, taldea osatzen duen entitate multzoa hartuko da kontuan.
- Baldintza hauek betetzen dituen beste edozein entitate:
 - Partaide bakarrak apartatu honetako a) eta b) letratan aipatzen diren entitateetako langileak izatea, eta langile horiek eskurapena egin aurreko bost urteetatik gutxienez hirutan lan egindakoak izatea bertan, letra horietan jasotako eran.

Entitateko akziodunen osarari begira, entitatean langileek bakarrik parte hartzeko beharkizuna, aurreko paragrafoan aipatua, ez da bete gabetzat joko entitatean parte hartzen duten langileek entitate enplegatuaren lan egiteariuzten diotenean ezintasun iraunkor osoa, absolutua, edo baliiezintasun handikoa aitortu zaielako.

Era berean, entitateko akziodunen osarari buruzko beharkizuna ez da bete gabetzat joko partaidetza langileek bakarrik partaidetutako entitateko akzio edo partaidetzak eskuratu ondoren hildako langileen onordekoei dagokienean. Aurreko hori bi urtez aplikatuko da gehienez, langilea hiltzen denetik aurrera.

b) Bere aktiboaren gutxienez 100eko 90, a) eta b) letratan aipatutako akzio edo partaidetzak eratzeko. Porzentaje hori zehaztearen ondorioetarako, diruzaintza ez da konputatuko aktiboan.

Akzio edo partaidetzak eskuratu edo harpidetu badira entitatea eratzeko edo kapitala zabaltzeko, entitateak bi hilabeteko epea izango du b) letra honetako baldintza betetzeko.

Urteko kenkaria ezingo da izan 1.500 euro baino handiagoa, eskuratzailea gizonetako denean, edo 2.000 euro baino handiagoa, emakumeetako denean.

Kopuruak ezin badira kendu aurreko paragrafoan ezarritako mugak gainditzeagatik edo kuota osoa nahikoa ez izateagatik, hurrengo lau ekitaldietan kendu ahal izango dira, betiere aipatutako mugak errespetatuz.

Zergaldi jarraituetan zehar zergadun bakoitzak artikulu honen arabera kendutak zenbatekoen batura ezingo da izan 6.000 eurotik gorakoa, eskuratzaila gizonezkoa denean, edo 8.000 eurotik gorakoa, emakumezkoa denean.

Gainera, kenkaria aplikatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- Azkio edo partaidetzak ezin dira izan negoziagarriak balore merkatu arautuetan.
- Ezinbestekoa da entitateek ez betetzea ondare sozietateak izateko baldintzak.
- Kenkari honetarako eskubidea ematen duten akzio edo partaidetzak bost urtez mantendu behar dira gutxienez, salbu eta langile eskuratzaila edo harpideduna epe horren barruan hiltzen denean, entitateak kalean uzten duenean, edo entitate hori konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzen denean.
- Langile bakoitzak zuzenean edo zeharka akzio edo partizipazioetan izan dezakeen partaidetza, barruan sartuta ezkontidearena edo izateko bikote-lagunarena, aurreko ahaideena edo adoptatzaileena, ondorengo ahaideena eta adoptatuena, eta zeharkako ahaideena hirugarren graduraino, ezin da izan 100eko 20tik gorakoa. Entitatea talde bateko kide bada, baldintza hori taldea osatzen duen entitate bakoitzari dagokionez bete beharko da.
- Ezarritakoa ez da aplikatuko eskurapena akzio edo partaidetzen gaineko aukerak baliatuta egiten denean.
- Kenkari hau aplikatu ahal izateko, zergadunak berariaz adierazi behar du, ekitaldiko autolikidazioa aurkeztean, aplikazioaren aldeko aukera egiten duela.

Exijitutako baldintzak edo aktiboaren osaeraren portzentaia ez betetzeak bost urteko epearen barruko edozein egunetan, kendutako kopuruak itzuli beharra ekarriko du berekin, berandutze-interesak barne.

Entitate baten akzio edo partaidetzak edo taldeko entitate batekoak eskualdatzean zer ondare edo irabazi egon den kalkulatzeko, akzio edo partaidetza horien eskurapenaren unean geroko eskualdaketari begira adostutakoa, horixe hartuko da merkatuko baldintza normaletan alderdi independenteez adostutako prezioztat. Ezinbestekoa da adostutako hori eskirtura publikoan jasotzea.

Zergaldi jarraituetan kendutako zenbatekoen muga aplikatzearen ondoretarako, ez dira kontutan hartuko 2016 baino lehenagoko zergaldietan langileek enpresan parte hartzeagatik kendutako kopuruak.

12.6.3 Kenkaria enpresa berrietan edo osatu berrietan inbertitzeagatik

Zergadunek zergaldian ordaindutako kopuruaren % 20ko kenkaria aplikatu dezakete enpresa berri edo osatu berrien akzio edo partaidetzak harpidetzeagatik, baldintza jakin batzuk betetzen badira.

Era berean, kapitalari behin-behineko ekarpena egiteaz gainera, beren ezagutza enpresarial edo profesionalak jar ditzakete inbertitzen duten enpresa egoki garatzeko, zergadunaren eta entitatearen arteko inbertsio akordioan ezartzen denarekin bat etorritz.

- Kenkariaren oinarria harpidetutako akzio edo partaidetzen eskuratzeko balioa izango da, eta gehienez 50.000 eurokoa izango da urtean.
- Halaber, urtean gehienez kendu daitezkeen kopuruak ezin du gainditu zergadunari zerga honetan dagokion oinarri likidagarriaren % 10. Aurreko mugak gaindi-

tzeagatik kendu ez diren kopuruak, ondorengo bost urte jarraituetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu daitezke, baina muga berdinak errespetatuz..

12.7 Kenkariak dohaintzengatik

12.7.1 Mezenasgo jarduerengatik

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko foru arauan⁹⁸ zerga honetarako aurreikusitako kenkariak aplikatu ahal izango dituzte zergadunek.

Laburki, honako kenkariak aipa daitezke:

- Mezenasgoari %20 eta lehentasunezko jarduerari egingako dohaintzengatik: %30.
- Zuzeneko zenbatespenean dauden zergadunek lehentasunezko jardueretarako egingakoengatik: %18.

Kenkariaren oinarria

Kenkari honen oinarria **ezin da izan** zergaren oinarri likidagarriaren %30 baino handiagoa.

Dagokion eredu informatiboan aipatzen diren zergadunek bakarrik aplikatu dezakete kenkari hau.

Dena den, dohaintza egiten duen entitateak ez badu aurkezten aurreko paragrafoan aipatutako eredu informatiboa, zergadunak artikulu honetan araututako kenkaria egin dezake dohaintzaren ziurtagiria eta ordainketa egiaztatzen duen frogagiri bankarioa aurkezten dituenean.

12.8 Bestelako kenkariak

12.8.1 Kenkaria nazioarteko zergapetze bikoitzagatik

Zenbaitetan bi aldiz tributatzen de kontzeptu berdineagatik, hau da, zergapetze bikoitza gertatzen da (bi aldiz aplikatzen da zerga). Egoera hori zuzentzeko, apartatu honetan aipatzen den kenkaria egiten da.

Zergadunaren errentan atzerrian lortu eta zergapetu diren etekin edo ondare irabaziak daudenean, zenbateko jakin batek izan dezake kenkaria. Ondoko hauetako **txikiena** hartuko da kenkaria egiteko.

- Etekin edo ondare irabazi horien gainean antzeko zerga batengatik edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren pareko karga batengatik atzerrian ordaindutako zenbateko efektiboa.
- Atzerrian lortutako errentari batez besteko karga tasa, orokorra edo aurrezpenarena, aplikatzearen emaitza. Karga tasa hori izan daitezke:
 - **Orokorra**, atzerrian lortu eta zergapetu den errenta oinarri likidagarri orokorrean sartu bada.
 - **Aurrezpenarena**, etekin horiek aurrezpenaren oinarri likidagarrian sartu badira.

Atzerriko errentak establezimendu iraunkor bidez lortzen direnean, nazioarteko zergapetze bikoitzagatik araututa dagoen kenkari hau izango da aplikagarria. Sozietateen gaineko Zergaren araudian zergapetze bikoitza deuseztatzeko jasotzen den prozedura ez da inoiz ere aplikatuko.

⁹⁸ Ikus apirilaren 7ko 3/2004 Foru Araua, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoa.

12.8.2 Kenkaria langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik eta alderdi politikoen aldeko kuota eta ekarpenengatik

Zergadunek %20ko kenkaria egin dezakete langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik.

Era berean, alderdi politikotako afiliazio kuotengatik eta haien aldeko ekarpenengatik zergadunek %20ko kenkaria egin dezakete.

Lanaren etekinen barruan gastu bezala kentzen diren kopuruak ez dira sartuko kenkari honen oinarrian⁹⁹.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari eredu informatiboa aurkeztean langileen sindikatuek eta alderdi politikoei adierazten dituzten zergadunek baino ezingo dute aplikatu apartatu honetan aipatzen diren kenkariak.

12.8.3 Kenkariak nazioarteko gardentasun fiskaleko erregimenean

Dibidenduak edo mozkin partaidetzak banatzeagatik atzerrian ordaindutako zerga edo karga kendu ahal izango da kuotatik, zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatian beti ere. Atzerriko zerga zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen bat aplikatuz edo dagokion herrialde edo lurraldearen barne legeriari jarraituz ordain daiteke.

Kenkari hau egingo da nahiz eta errenta positiboa oinarrian sartu den ekitaldia eta zergei dagozkien ekitaldiak berdinak ez izan.

Paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurraldeetan ordaintzen diren zergek ez dute inoiz kenkaririk izango.

Kenkari horrek muga bat du eta zera da, ezin dela zerga oinarrian egotzitako errenta positiboagatik Espainian ordaindu beharko litzatekeen kuota osoa baino handiagoa izan.

12.9 Frogagiriak

Kenkari hauek aplikatu ahal izateko, dagozkien frogagiriak aurkeztu behar dira. Agiri horiek enpresari eta profesionalek fakturak egin eta emateko duten obligazioari buruzko arautan ezarrita dauden baldintzak bete behar dituzte.

LABURPENA: kuotako kenkariak	
Kenkari mota	Kenkaria
Ondorengo ahai-deengatik	Lehenengoa – 585,00 € Bigarrena – 724,00 € Hirugarrena – 1.223,00 € Laugarrena – 1.445,00 € Bosgarrena eta hurrengoak – 1.888,00 €
6 urtetik beherako ondorengo ahai-deengatik	335,00 €
Urteko mantenua ordaintzeagatik	%15 Muga: 1. seme-alaba – 175,50 € 2. seme-alaba – 217,20 € 3. seme-alaba – 366,90 € Laugarrena – 433,50 € Bosgarrena eta hurrengoak – 566,40 €

99 Ikus 2. kapituluaren barruan, "Lanaren etekinak" izenekoan, 2.5 apartatua, lanaren etekinen gastu kengarriei buruzkoa.

Aurreko ahaideengatik	279,00 €																					
Zergaduna, aurreko edo ondorengo ahaidea, ezkontidea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikole-laguna, edo laugarren mailarainoko zeharkako ahaideak, hura barne, desgaituak edo mendekoa izateagatik, eta 65 urteko edo hortik gorako pertsona desgaitua, beste batzuen laguntza behar duena, aurreko ahaide edo asimilatuen zerrendan sartuta egon gabe, zergadunarekin bizitzeagatik.	- Minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa bada: 867,00 euro. - Minusbaliotasuna %65ekoa edo handiagoa bada: 1.224,00 euro. Mendetasun txikia. - Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuz: 1.428,00 euro. Mendetasun ertaina - Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuz: 2.040,00 euro. Mendetasun handia.																					
Adinagatik	Banakako tributazioa aukeratu bada, hau da kenkaria: <table border="1"> <thead> <tr> <th>Adina</th> <th>ZO <20.000</th> <th>20.000-30.000 arteko Z.O.</th> <th>ZO> 30.000</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>> 65</td> <td>334 €</td> <td>334 - 0,0334 x (ZO-20.000)</td> <td>0 €</td> </tr> <tr> <td>> 75</td> <td>612 €</td> <td>612 - 0,0612 x (ZO-20.000)</td> <td>0 €</td> </tr> </tbody> </table> Baterako tributazioa aukeratu bada, hau da kenkaria: <table border="1"> <thead> <tr> <th>Edad</th> <th>ZO <35.000</th> <th>ZO> 35.000</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>> 65</td> <td>334 €</td> <td>0 €</td> </tr> <tr> <td>> 75</td> <td>612 €</td> <td>0 €</td> </tr> </tbody> </table>	Adina	ZO <20.000	20.000-30.000 arteko Z.O.	ZO> 30.000	> 65	334 €	334 - 0,0334 x (ZO-20.000)	0 €	> 75	612 €	612 - 0,0612 x (ZO-20.000)	0 €	Edad	ZO <35.000	ZO> 35.000	> 65	334 €	0 €	> 75	612 €	0 €
Adina	ZO <20.000	20.000-30.000 arteko Z.O.	ZO> 30.000																			
> 65	334 €	334 - 0,0334 x (ZO-20.000)	0 €																			
> 75	612 €	612 - 0,0612 x (ZO-20.000)	0 €																			
Edad	ZO <35.000	ZO> 35.000																				
> 65	334 €	0 €																				
> 75	612 €	0 €																				
Pertsona desgaituaren ondare babestuari egindako ekarpenengatik	%30eko kenkaria (urtean 3.000,00 euro gehienez) pertsona desgaituen ondarea babesteari buruzko 41/2003 Legean araututako ondare babestuari egindako ekarpenengatik.																					
Etxebizitza errentan hartzeagatik	- Orohar: %20. Muga: 1.600,00 € - %25, 2.000,00 €-ko mugarekin, honako hauek direnean: . 30 urtetik beherakoak. . Familia ugarien titularrak.																					
Etxebizitza erosi edo birgaitzeagatik	<table border="1"> <thead> <tr> <th>2012/01/01 baino lehen erositak</th> <th>2012/01/01etik aurrera erositak</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Kreditu fiskala: 36.000,00 euro Inbertsioaren + finantzazioaren %18 (gehienez 2.160 euro)</td> <td>Kreditu fiskala: 36.000,00 euro Inbertsioaren + finantzazioaren %18 (gehienez 1.530 euro)</td> </tr> <tr> <td>Inbertsioaren + finantzazioaren %23 baldin > 35 urte baditu edo familia ugaria bada (gehienez 2.760 euro)</td> <td>Inbertsioaren + finantzazioaren %23 baldin > 30 urte baditu edo familia ugaria bada (gehienez 1.995 euro)</td> </tr> </tbody> </table>	2012/01/01 baino lehen erositak	2012/01/01etik aurrera erositak	Kreditu fiskala: 36.000,00 euro Inbertsioaren + finantzazioaren %18 (gehienez 2.160 euro)	Kreditu fiskala: 36.000,00 euro Inbertsioaren + finantzazioaren %18 (gehienez 1.530 euro)	Inbertsioaren + finantzazioaren %23 baldin > 35 urte baditu edo familia ugaria bada (gehienez 2.760 euro)	Inbertsioaren + finantzazioaren %23 baldin > 30 urte baditu edo familia ugaria bada (gehienez 1.995 euro)															
2012/01/01 baino lehen erositak	2012/01/01etik aurrera erositak																					
Kreditu fiskala: 36.000,00 euro Inbertsioaren + finantzazioaren %18 (gehienez 2.160 euro)	Kreditu fiskala: 36.000,00 euro Inbertsioaren + finantzazioaren %18 (gehienez 1.530 euro)																					
Inbertsioaren + finantzazioaren %23 baldin > 35 urte baditu edo familia ugaria bada (gehienez 2.760 euro)	Inbertsioaren + finantzazioaren %23 baldin > 30 urte baditu edo familia ugaria bada (gehienez 1.995 euro)																					
Etxebizitza kontua	%18 (berdin da kontua noiz ireki den)																					
Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak	Sozietateen gaineko Zergaren arabera zuzeneko zenbatespenaren metodoa erabiliz gero.																					

Langileek enpresan parte hartzeagatik	%15a gizonezkoentzat, %20a emakumeentzat. Muga 6.000 euro gizonezkoentzat, 8.000 euro emakumeentzat, eta urteroko muga 1.500 euro gizonezkoentzat eta 2.000 euro emakumeentzat. Soberakoa hurrengo lau urtetan aplikatu behar da.	
Kenkaria enpresa berrietan edo osatu berrietan inbertitzeagatik	% 20ko kenkaria eta gehienez 10.000 €, eta ezin du gainditu oinarri likidagarriaren % 10	
Mezenasgo jarduerengatik Kenkari honen oinarria ezin da izan zergaren oinarri likidagarriaren %30 baino handiagoa.	%20, %30 eta %18	
Langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik eta alderdi politikoen aldeko kuota eta ekarpenengatik	- langileen sindikatuei ordaindutako kuoten %20. - alderdi politikoetako afiliazio kuoten eta haien aldeko ekarpenen %20.	
Nazioarteko zergapetze bikoitzagatik	Hauetan txikiena	a) atzerriko zerga b) batez besteko tasa orokorraren arabera edo aurrezpenaren arabera lortutako errenta
Nazioarteko garden-tasun fiskala	Atzerriko zerga	